Bilboko Portuak, intermodalitatearen aldeko apustuan, tren- eta errepide-konexioen sare eraginkorra du, etengabe garatzen ari dena. Europako autobide-sare trinkoari lotuta dago, eta besteak beste, Madril bezalako hirietarako sarbide zuzena eta beste hiri-ingurune askotarako loturak ditu.

Zehazki, autobia batek Santurtziko Portualdea **A-8 autobidearekin** lotzen du, eta, handik, Bilbo Santanderrekin, Madrilekin, Zaragozarekin eta Frantziako mugarekin lotzen duen Autobide-sarearekin. Era berean, Luzuero lurmuturreko terminalak **A-8arekin** lotuta daude, bi erreiko errepide baten bidez. Halaber, Zorrotzako kaiak eta Getxoko gurutzatzenak A-8arekin lotzen dira tokiko errepideen bidez.

2011n, **Bilboko Metropoliaren Hegoaldeko Saihesbidea** edo **“Supersur”** jarri zen martxan. Bilboko errepide bidezko saihesbidea da, eta trafiko astunerako da bereziki, porturako sarbideak hobetuz. Era berean, **A-68 autobidea** dugu, Portua Zaragozarekin eta Bartzelonarekin lotzen duena, eta **A-1 autobidea**, Bilboko Portua Madrilekin lotzen duena, Lisboara eta Espainiako hegoaldeko hirietara joateko lotuneekin.

Errepide bidezko konexioen mapa





Errepede bidezko loturen mapa

Halaber, Bilboko Portua erreferentzia da trenaren erabilerari dagokionez, eta **22 portu lehorrez** osatutako sare zabal bat du, probintzia hauetan banatuta: Araba, Bartzelona, Burgos, Guadalajara, Huesca, Errioxa, Madril, Murtzia, Sevilla, Tarragona, Valentzia, Pontevedra eta Zaragoza. Sare horri esker, askotariko salgaiak garraiatzen dituzten konposizioak jaso eta bidal ditzake, edukiontzietan, ontziratu gabeko salgai solido edo likidoak, eta salgai orokorrak. Izan ere, trenbideko sarbideek Bilboko Portua bide zabaleko Sare nazionalarekin lotzen dute Miranda de Ebroraino. Handik, Burgos-

Trenbidea da, ingurumenari dagokionez, lurreko garraiobiderik jasangarriena, eta portuaren eragin-eremua hazten laguntzen du. Distantzia handitu ahala, kamioia baino lehiakorragoa da, betiere haren erabilera sustatzen bada.

Gainera, portuko instalazioen barruan, EBT (Edukiontzien Berariazko Trena) terminal bat eta trenak prestatzeko estazio bat ditu, ezaugarri hauekin:

- **Azalera:** 120.500 m<sup>2</sup>
- **Sailkapen-estazioa:** 500 eta 780 metro bitarteko 8 burdinbide
- **EBT terminala:** 450 metroko 6 burdinbide



Era berean, BPAk **7 depotetan** parte hartzen du, eta Arabako Arasurreko plataforma logistikoaren eta Burgosko Pancorboko tren-terminal logistikoaren (TELOF) jabe bakarra da.

Lurreko garraioan trenbidearen kuota handitzeko neurriek barne hartzen dute kudeaketa, azpiegiturak eta merkaturatzea hobetzea.

## Jarraian, Portuko Agintaritzak aurreikusitako neurriak aurkezten dira:

### Tren-garapeneren aldeko apustu sendoa

Ekitaldi honetan, astero, edukiontzien trenbide-zerbitzuak egin dira Portutik Abroñigal, Agoncillo, Bartzelona, Coslada, Nonduermas, Sevilla, Silla, Valentzia, Valladolid, Villafría, Villaverde eta Zaragozara. Gainera, tren-konexio erregularrak ere izan ziren, ohiko kargakoak eta ontziratutako gabeko karga likidokoak, Portuko hinterlandaren jatorri eta helmuga desberdinetakoak.

Apustu intermodal horrek, distantzia laburreko lineen eskaintzarekin batera, Portuaren lehiakortasuna hobetzen du, eta garrantzi handia du kate logistikoan, karbonoa kentzeko eragile nagusi gisa, EBren helburuetako baten ildotik.



### Beste terminal batzuk

JLEen eta Portu Lehorren garapena eta Bilboko Portuarekiko bere tren-lotura sustatzea barne-merkatu nagusietan: Madrilgo eremuan (Azuqueca de Henares eta Coslada), Burgosen (Villafría), Araban (Jundiz eta Arasur), Zaragozan (PLAZA), Nafarroan (Noain) eta Murtzian (Nonduermas), produktu galkorrak erakartzeko.

*I\_23 Portuko Agintaritzak hartutako estrategien deskribapena, ibilgailuen zamaketa eta deskarga operatiboaren (Ro-Ro) bidez artatzen den trafikoa sustatzeko.*

**Bilboko Portuko Ro-Ro eta Ferry trafiko-zerbitzuak:**

Brittany Ferries ontzi-enpresak A6 eta AZ3 kaltetan lan egiten du, zeinek guztira bi ro-ro arrapala dituzte, eta Bilbo Erresuma Batuekin eta Irlandarekin lotzen dute, astean 6 aldiz.

Finnlines ontzi-enpresak A5 eta A6 kaltetan lan egiten du, zeinek guztira bi ro-ro arrapala dituzte, eta Bilbo Espainiarekin, Belgikarekin, Finlandiarekin, Errusiarekin, Estoniarekin, Alemaniarekin eta Erresuma Batuekin lotzen dute, astean behin.

	2024	2023	2022
Ro/Ro trafikoa	1,2	0,9	1,0
Salgai Orokorra Guztira	8,5	8,2	8,5
Ro/Ro / Salgai Orokorra %	14,1	11	11,8

*I\_24 Azken hiru urteetan, portutik trenbidez sartzen eta irteten den salgaien ehunekoaren bilakaera, errepide eta trenbide bidezko trafikoari dagokionez; eta azken hiru urteetan, portuan sartzen eta ateratzen den itsas salgaien ehunekoaren bilakaera, errodadura bidezko karga- eta deskarga-eragiketen bidez, itsas inportazio-esportazioko salgai orokor guztiarekiko.*

2024an, **4.017** tren sartu edo irten dira portuko instalazioetan, eta edukiontziak trena erabiltzeko kuota **%27ra** iritsi da.

Mll T. -tan	2024		2023		2022	
Errepidea	92%	14,6	89%	12,3	89%	11,8
Trenbidea	8%	1,2	11%	1,5	11%	1,5
Errepidea + Trenbidea	100%	15,8	100%	13,8	100%	13,3



## 1.9. Komunikazio instituzionala

I\_25 Portuko Agintaritzak identifikatutako interes-taldeen zerrenda. (G4-15)

(G4-16) (G4-24) (G4-25)



<p><b>BPAko profesionalak</b> <b>Bisitariak</b></p>	<p>Langileak, guztira: 278 Bisitak:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>◆ 3.592 ikasle</li> <li>◆ 918 heldu</li> <li>◆ 2.847 unibertsitate-ikasle</li> </ul>
<p><b>BPA hornitzaileak</b></p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>◆ Obra-kontratatistak</li> <li>◆ Kanporatutako zerbitzuak</li> <li>◆ Hornitzaileak</li> </ul>
<p><b>UNIPORT BILBAO</b></p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>◆ Bilboko Portuko Komunitatea: 142 enpresa eta erakunde elkartu, %8 sektore publikokoak</li> </ul>
<p><b>Itsasontziaren zerbitzurako Portu-enpresak</b></p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>◆ Kontsignatarioak/Itsas agenteak</li> <li>◆ Bunkeringa</li> <li>◆ Zerbitzu osagarriak</li> <li>◆ Hornidurak eta zuzkidura</li> <li>◆ Portuko Gidarien Korporazioa</li> <li>◆ Atoiontziak</li> <li>◆ Amarratzaileak</li> <li>◆ MARPOL hondakinen bilketa</li> <li>◆ Konponketak</li> <li>◆ Sailkatze/ikuskatzeko sozietateak</li> <li>◆ Stella Maris – Seamen 's Club - (Tripulazioak Kudeatzeko Sozietateak)</li> <li>◆ Ontzi-enpresak</li> </ul>

<p><b>Salgaien zerbitzurako Portu-enpresak</b></p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Aduanetako agenteak/komisio-hartzaileak</li> <li>- Zamaketariak</li> <li>- Terminalistak</li> <li>- Gordailu Frankoak/Aduanakoak</li> <li>- BAD Biltegitratzeko eta Gordailu gu-nea</li> <li>- Trenbide-garraioko enpresak</li> <li>- Garraio-kudeatzaileak/Logistika-operadoreak</li> <li>- Pleitamendua</li> <li>- Matxuren komisarioak</li> <li>- Karga-ikuskatzaileak</li> <li>- Aseguru-konpainiak</li> <li>- Portuko Zamaketariak Kudeatzeko</li> </ul>
<p><b>Emakidadunak</b></p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Ontziolak</li> <li>- Industria-enpresak</li> <li>- Portu- eta merkataritza-zerbitzuak</li> <li>- Kirol-portuak</li> </ul>

I\_26 Interes-taldeekin komunikatzeko eskema eta talde horiek parte hartzeko ereduak. (G4-26) (G4-27)

Portutik kanpoko interes-taldeekiko harremana BPAk betetzen du, **Eragiketa, Merkataritza eta Logistika Zuzendaritzak** egiten dituen ekintzen bidez.

BPAk portuko enpresa osatzen duten interes-taldeekin duen komunikazioa zuzena eta pertsonalizatua da, eta **Uniporten** lankidetzatza du. Honek Lan Mahaiak osatzen ditu koordinazio- eta produktibitate-gai zehatzak lantzeko, eta BPAko interesdunak eta ordezkariak bertan daude.



<p><b>Erakunde ofizialak</b></p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>◆ Aduanen Administrazioa</li> <li>◆ Guardia Zibila</li> <li>◆ Itsas Kapitaintza</li> <li>◆ SOIVRE</li> <li>◆ Zerbitzu Fitosanitarioak</li> <li>◆ Polizia Nazionala</li> <li>◆ Osasuna</li> <li>◆ Itsas Salbamendua</li> <li>◆ Itsasoko Gurutze Gorria</li> <li>◆ Ertzaintza</li> </ul>
<p><b>Administrazioak eta Erakunde publikoak</b></p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>◆ Estatuko Gobernua: Bizkaiko Ordezkariordeztza.             <ul style="list-style-type: none"> <li>- Sustapen Ministerioa</li> <li>- Ogasun Ministerioa</li> <li>- Ingurumen, Landagune eta Itsas Inguruetako Ministerioa</li> </ul> </li> <li>● Estatuko Portuak Erakunde Publikoak</li> <li>● Eusko Jaurlaritza</li> <li>● Bizkaiko Foru Aldundia</li> <li>● Udalak (9): Bilbo, Barakaldo, Sestao, Portugalete, Santurtzi, Zierbena, Erandio, Leioa, Getxo</li> <li>● Merkataritza Ganbera</li> </ul>
<p><b>Bezeroak</b></p>	<p>Ontzi-enpresak</p>
<p><b>Beste batzuk</b></p>	<p>JLE eta Portu Lehorrak Beste portu batzuk</p>


**BPAk Uniportekin duen komunikazioari** dagokionez, oso arina da. Portuko Presidentea bere Zuzendaritza Batzordeko kidea da, eta Uniporteko Sustapen eta Koordinazio jardueretan BPAko ordezkariak parte hartzen dute.

Portuko jarduerak, lehiarako abantailak eta eragin ekonomiko eta soziala hedatzeko, Portuko Agintaritzak etengabeko harremana du komunikabide espezializatu eta orokorrekin, komunikabideek eskatzen duten edo interesatzen zaien informazio espezifikoa ematen baitie.

BPAk [www.bilbaoport.eus](http://www.bilbaoport.eus) webgunea dauka eta eguneratuta mantentzen du, portuari eta haren zerbitzuei buruzko informazio osoarekin.

### Merkataritza Sailak 2024an gauzatutako ekintzak hauek izan dira:

1. Bilboko porturako lehenetsuneko merkatuetan izandako jaitsierari **aurre egitea**, edukiontzian eta ohikoan: Erresuma Batua, Holanda, Belgika, Estatu Batuak, Txile, Mexiko eta Errusia.
2. Beste herrialde batzuetako hazkunde-joerak **aprobetxatzea** Bilbotik eskaintzen diren itsas konexioak bultzatzeko: Maroko, Thailandia, Txina, edukiontzirako; eta Hego Korea, Iran, Ukraina eta Taiwan.
3. Ontzi-konpainiei lehendik dauden zerbitzuak edo berriak garatzen **laguntzea**: Finnlines, MacAndrews, Brittany Ferries, Macs, COSCO, MSC, Condor/Volans.
4. DLIGren eta, bereziki, itsasoko autobideetan, lidergoa **bul-tzatzea**: Irun/Frantziako hegoaldea.
5. Trafiko eta merkatu berrien garapena **sustatzea**: reefer zamak, automobilak, ontziratu gabeko salgaiak, produktu kimikoak.
6. Hinterlandeko presentzia **areagotzea**, ekintzak eginez: Burgo-sen, Valladoliden, Madrilen eta Bartzelonan.
7. Edukiontziak Amerikara garraiatzeko konektibitatea **hobetzea**.



### *I\_27 Interes-taldeen ardura edo kezka nagusiak. (G4-27)*

Portu Komunitatea osatzen duten taldeek adierazi dute interesa dutela BPAk eraginkortasunez bete ditzan azpiegituren eta logistika-eremuen hornitzaile eta portu-jardueraren koordinatzaile funtzioak, Sozietatearen zein Portu Enpresako kideen onurarako. **Ontzi-enpresek eta kargatzaileek**, portuko bezeroak diren aldetik, bere beharrak eta itxaropenak asetzea eskatzen dute, hau da, zerbitzuen kalitatea.

Portuko Komunitateko barneko interes-taldeekiko identifikazioa eta konpromisoa ondo konponduta daude Bilboko Portuan, **Uniporten** bidez, lehen esan bezala. Kanpoko interes-taldeak, hasiera batean ontzi-enpresak eta kargatzaileak zirenak, trantsitarioetara eta logistika-operadoreetara zabaldu dira, eta, berriki, errepide eta trenbide bidezko lurreko garraiolarietara, horiek baitira oinarrizko elementuak garraio intermodalean eta Short Sea Shipping-ean (SSS), edukiontzietakoa, kamioietakoa, plataformetakoa eta autoetakoa.

### *I\_28 Beste administrazio batzuekiko koordinazio- eta lankidetzaproiektuak (G4-27)*

Portu Jabearen berariazko koordinazio-funtzioa, oro har, arina da, bai alderdi administratiboan **e-puertobilbao** bidez, bai alderdi logistikoa. **I\_32** atalean, BPAk portuko enpresen esku jartzen dituen zerbitzu informatikoak adierazten dira, barne-efizientzia, eraginkortasuna eta koordinazioa indartzeko.

### *I\_29 Portuko Agintaritzak kide den edo aktiboki parte hartzen duen elkarte tekniko edo enpresarialak. (G4-16)*

Bilboko Portuko Agintaritzak aktiboki parte hartzen du hainbat elkarte tekniko edo enpresarialetan.

Horien artean, honako hauek nabarmentzen ditugu:


- Lehen aipatutako portua sustatzeko **Uniport Bilbao** elkarteak, portu osoaren adierazpen korporatiboa gisa, Osoko Zerbitzu-enpresa gisa.
- **Euskadiko Mugikortasun eta Logistika Klusterra**, garraioaren eta logistikaren lehiakortasuna hobetzeko tresna.
- **European Sea Ports Organisation ESPO**, estatu kideetako eta Norvegiako portuen, elkartearen eta portu-administrazioen ahotsa da, Europako Batzordearen aurrean.
- **Hiri eta Portuen Nazioarteko Elkarteak (AIVP)**, hirien eta portuen garapenerako hiri- eta portu-eragileak biltzen dituena, bai eta haien bazkideak ere, portu-hiriek lehiakortasun handiagoa lortzeko bidean aurrera egin dezaten, aldi berean bere biztanleen bizikaltatea hobetuz.

- Nazioarteko Portuen Elkarte, International **Association of Ports and Harbours (IAPH)**. Haren helburu nagusia munduko portu guztien arteko harreman onak eta lankidetzak garatzea eta sustatzea da, eta, horretarako, foro bat eratzea, portuko kudeaketaren eta eragiketen azken joerei buruzko iritziak trukatzeko eta esperientziak partekatzeko.
- **Cruise Europe**, Europa Atlantikoko eta Baltikoko 100 portu baino gehiago biltzen dituen elkarte, Iparraldeko Europa itas bidaietarako helmuga gisa sustatzeko.
- **IPCSA**, International Port Community Association.
- **Costa Verde**, Bilboko, Santanderko, Gijónko eta Coruñaiko portuek sortutako elkarte, Espainiako iparraldeko portu horiek gurutzaldien turismoaren sektorean sustatzeko.



Bilboko Portuko Agintaritzak “**Short Sea Shipping**”-a Sustatzeko Espainiako Bulegoko bazkide da. Eta hauek dira:

- Euskal Herriko Itsas Foroa
- ATPYC Portu eta Kostaldeko Elkarte Teknikoa
- SMDG Shipping Message Design Group
- UNECE Europarako Nazio Batuen Batzorde Ekonomikoa
- DTLF Digital Transport Logistic Forum
- BBCF Bilbao Bizkaia Cruise Forum
- Transmodal



## 1.10. Sustapen komertziala

*I\_30 Portuko Agintaritzak Portuaren merkataritza-sustapenerako sustatutako ekimenen deskribapena. Merkatu-prospekzionarako sektore objektiboei eta egin litezkeen landa-lanei erreferentzia.*

2024rako planifikatutako Plan Komertzialak helburu hauek lortzeko ekintzak proposatzen ditu: Hinterland Estrategikoko egungo bezeroen eta bezero potentzia beharrak identifikatzea, SSSan finkatzea, azpiegitura berriak merkaturatzea, portuko jarduerak sustatzea eta gurutzaontzien turismoa garatzea.

**Bilboko Portuaren Merkataritza Planaren** garapena ekintza eta asistentzia hauetan gauzatu zen 2024an:

Lehen Hiruhilekoa		Bigarren Hiruhilekoa	
<p><b>AZOKAK</b></p> <p><b>Otsaila</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>Fruit Logística (Berlin)</li> <li>ENOC (Zaragoza)</li> <li>IMEX (Madrid)</li> <li>Empack Bilbao(BEC)</li> </ul> <p><b>Martxoa</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>Intermodal South America (Sao Paulo)</li> <li>Wind Europe Conference &amp; Exhibition</li> </ul>	<p><b>JARDUNALDIAK</b></p> <p><b>Otsaila</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>B2B Navarra aurkezpena</li> <li>Madrilekin Trenbide Korridoreak garatzea</li> <li>WEC Line Zerbitzuen aurkezpena</li> </ul>	<p><b>AZOKAK</b></p> <p><b>APIRILA</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>Seatrade Cruise Global (Miami)</li> </ul> <p><b>Malatza</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>Expovacaciones (BEC)</li> <li>Breakbulk Europe (Rotterdam)</li> </ul>	<p><b>JARDUNALDIAK</b></p> <p><b>Apirila</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>Logistic Spain Innovation Hub (Guadalajara)</li> <li>Coastlink (Amsterdam)</li> </ul> <p><b>Maiatza</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>Nekazaritzako elikagaien industriaren eguna (Nafarroa)</li> </ul>
Hirugarren Hiruhilekoa		Laugarren Hiruhilekoa	
<p><b>AZOKAK</b></p> <p><b>Iraila</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>Seatrade Med (Malaga)</li> <li>Duero Zerealen Burtza (Valladolid)</li> </ul>	<p><b>JARDUNALDIAK</b></p> <p><b>Iraila</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>Project Cargo Summit (Bilbao)</li> <li>Congreso Feteia (Zaragoza)</li> </ul>	<p><b>JARDUNALDIAK</b></p> <p><b>Urria</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>ATPYC Biltzar Nazional ( Coruña)</li> <li>Euroslag (Bilbao)</li> <li>Bizkaiko bide azpiegiturak (Bilbo)</li> </ul> <p><b>AZOKAK</b></p> <p><b>Iraila</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>Fruit Attraction (Madrid)</li> </ul>	<p><b>Azaroa</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>Aragón tierra logística (Zaragoza)</li> <li>Bizkaiko plataforma logistikoak (Bilbo)</li> <li>Webinar Bilboko Portua, Latinoamerikarekiko zerbitzu logistiko multimodalen eskaintza osoa</li> <li>Webinar: Project Cargo Summit</li> <li>Transmodal foroa (Gasteiz)</li> </ul>

## 1.11. Konpromiso instituzionala (G4-15)



*I\_31 Portuaren merkataritza-sustapenerako gastuen zenbatekoa, gastuen guztizko gisa eta ustiapen-gastuen ehuneko gisa adierazita.*

Merkataritza-sustapenera bideratutako gastuak, 2024an, **1.381 mila eurokoak** dira; jarduera horietan lanaldi osoan aritzen diren pertsonen lan-sariak eta soldatak barne.

Portuko merkataritza-sustapeneko gastuak Milaka €-tan	
1-Merkataritza-sustapeneko gastuak	1.381
2-Ustiapen-gastuak	68.174
Sustapena/Ustiapena %	<b>2,02 %</b>

*I\_32 Internet bidez edo beste bide telematiko batzuen bidez komunikatzeko eta zerbitzuak emateko proiektuak deskribatzea, portu-kudeaketa optimizatzeke, interes-taldeei informazioa emateko edo bezeroen edo hornitzaileen administrazio-kudeaketa ahalbidetzeko.*

Portuko Agintaritza zerbitzu telematiko batzuk garatzen ari da **e-puertobilbao** merkataritza elektronikoko plataformaren bidez, itsasontziak eta salgaiak portutik igartzeko kudeaketa azkarragoa eta eraginkorragoa lortzeko.

Gaur egun, hauek dira Bilboko Portuko logistika-komunitateko enpresentzat erabilgarri dauden zerbitzuak:


- Itsasontzien sarrerak eta irteerak kudeatzeko zerbitzu integratua (PIDE).
- Salgai arriskutsuak kudeatzeko zerbitzua.
- Adierazpen laburtuak kudeatzeko zerbitzua.
- Karga-manifestuen zerbitzuak.
- Edukiontzia Mugako Ikuskaritza Postuan (MIP) kokatzeko koordinazio-zerbitzua.
- Errepide bidezko garraioaren sarrerako aurreabisu-zerbitzuak, portuko sarrera-kontrolerako eta terminalerako ateen kudeaketarako.
- Karga-zerrenda edo esportazio-paperik gabeko jasodura.
- Entregatzeko eta onartzeko zerbitzua.
- Sarrera Aitorpen Laburra Kudeatzeko zerbitzua (ENS).
- Irteera Aitorpen Laburra Kudeatzeko Zerbitzua (EXS).
- Garraio-aginduaren zerbitzua.
- Salgaiak trenbidez sartzeko/ateratzeko zerbitzua.

*I\_33 Portuko Agintaritzak sustatutako edo aktiboki parte hartzen duten I+G+B proiektuak, horien helburuak eta lorpenak, eta proiektu horietan lankidetzan aritzen diren erakundeak. Kontzeptu horretara bideratutako guztizko baliabide ekonomikoak: gastuak eta inbertsioak, guztizko gisa adierazita eurotan eta Portuko Agintaritzaren gastu eta inbertsio guztien ehuneko gisa.*

Berrikuntza Sailak, Bilboko Portuko berrikuntza hub-arekin batera, Bilbao Portlab izenez ezaguna, izan zen 2019an Espainiako portu batean martxan jarri zen lehena, eta berrikuntza-ekosistema bat sortzea ahalbidetu du, non lankidetzak publikoak eta pribatuak funtsezkoak izan baitira. Bost urtean, 900 irtenbide identifikatu ditu, eta 51 proiektu mobilizatu, digitalizazioarekin, eraginkortasun logistikoarekin, segurtasun eta babesarekin edo energia eta jasangarritasunarekin lotuta.

2024an, Bilbao PortLabek babestutako **bost proiektu berri** onartu dira finantzaketa lortzeko Estatuko Portuen 4.0 programaren laugarren deialdian:

- **Zero Gravity.** Satelite bidezko irudien oinarritutako biki digitalak. Proba bat garatzea airearen kalitatea monitorizatzeko plataforma baten bidez, satelite bidez lortutako datuak eta lehendik dauden sentsoaren bidez lortutako datuak elkartuz.
- **Ocean Ecostructures.** Kaltzio karbonatozko panelak instalatu dira Bilboko Portuko hiru lekutan, eremu horietako bakoitzeko faunaren eta floraren erantzuna aztertzeko.
- **Econcrete.** Forma ahurrak dituzten blokeak dira, ura gordetzeko eta flora eta fauna hazteko putzuak sortzeko aukera ematen dutenak, biodibertsitateak nola eboluzionatzen duen aztertzeko. Ceballos lurmuturreko ezpondan daude.
- **Vicomtech + Toro y Betolaza.** Automatizatu gabeko gapen automatizazioaren simulazioa Toro y Betolaza terminaleko operatiboan.
- **Ekinbarri.** Enpresak eraldatzeko metodologia, pertsonengan oinarritutako etorkizunera begiratzeko modu berri batekin, ingurune aldakor baten erronkei aurre eginez. Enpresei laguntzea konfiantzan, gardentasunean eta pertsonen parte-hartzean oinarritutako agertoki berri baterantz eboluzionatzen.



**344.015** euro mobilizatu dira guztira, eta dirulaguntza guztira **61.875** eurokoa izan da.

*I\_34 Portuko Agintaritzak sustatutako edo lagundutako fundazioak, kultura-ekimenak, ikastaroak, mintegiak, irakaskuntza-programak edo bestelako gizarte-programak eta erabilitako guztizko baliabide ekonomikoak: gastuak eta inbertsioak, guztizko gisa adierazita eurotan eta Portuko Agintaritzaren gastu eta inbertsio guztien ehuneko gisa.*

**Bilboko Portua eta Itsasadarra Fundazioa eta gizarte-jarduerak. (G4-16)**

**Fundación Puerto y Ría de Bilbao - Bilboko Portua eta Itsasadarra Fundazioa**, 2011ko martxoan eratu zen. Irabazi-asmorik gabeko erakundea da, nor-tasun juridiko eta ondare propioak eta Erakunde eta Institutuzio fundatzaileekiko independenteak ditu, eta bere helburuak betetzeko gaitasun osoa du, Estatutuetan xedatzen den bezala. Fundazioa hamar patronatukide sortzaileek osatzen dute: Bilboko Portuko Agintaritzaren eta Barakaldo, Bilbo, Erandio, Getxo, Leioa, Portugalete, Santurtzi eta Zierbenako Udalak.

Bere xedea da hedapen soziokultural eta aisialdi handiko interes orokorreko planak eta jarduerak sustatzea eta garatzea, Bilboko Portuak garapen ekonomiko, sozial eta kulturalean eta Nerbioi Itsasadarraren ibaiertzeko udalerrien integrazioan duen egungo eta historiako garrantzia hobeto ezagutzera emateko, bai eta portu-sektoreko berrikuntzarekin lotutako proiektuak eta ekimenak sustatzea eta garatzea ere. Fundazioak 12 Ohorezko Babesle ditu, urtean 5.000 euroko ekarpena egiten dutenak, eta 25 Kolaboratzaile Osoak, urtean 2.000 euroko ekarpena egiten dutenak.

**Bilboko Portua eta Itsasadarra Fundazioaren egoera, planak eta programak**

Fundazioaren programak bi jarduera-ardatz ditu, zeinetan hainbat jarduera biltzen diren, hala nola udalerrri bakoitzeko jarduerak eta zeharkako jarduerak:

**1. Zeharkako jarduerak**



Bilboko Portuko Agintaritzak, Bilboko Portua eta Itsasadarra Fundazioaren bidez, **Bilbao PortLab** sortu zuen 2019an, Bilboko portuan Berrikuntza Irekia sustatzeko gune bat.

Bilbao PortLabek gure Portu Komunitateko enpresek identifikatutako 4.0 Portuen eredu batera igartzeko beharrak ekintzaileek, start-upek, doktoretza-ikasleek eta gure sektoreko ikertzaileek garatu beharreko ideia eta proiektuekin elkartzeko gunea izan nahi du.

Nabarmentzekoa da, lehen esan bezala, Estatuko Portuen 4.0 funtsen bidez, eta portuko komunitateak planteatzen dituen erronkak konpontzeko, **5 proiektu berritzaile** hautatu dira 2024an Bilboko Portuan garatzeko.

### Kai Jai - Bilboko Portuaren Eguna

Fundazioaren helburua da interes orokorreko planak eta jarduerak sustatzea eta garatzea, proiektio soziokultural eta aisialdi-proiektio handiarekin, Bilboko Portuak gaur egun eta historian zehar Hiribilduaren garapen ekonomikoan, sozialean eta kulturean izan duen garrantzia hobeto ezagutzeko, Ibaizabal Itsasadarraren ertzeko udalerriak integratzeko, eta portu-sektorean berrikuntzari lotutako proiektuak eta ekimenak sustatzeko eta garatzeko.

2024an, berriz antolatu genuen Kai-Jai, portuaren ate irekien eguna. Portuaren errealtatea hurrei eta gazteei hurbiltzea helburu baitu. Igandean egin zen, urriaren 27an, Getxoko gurutzaontzien terminallean. Eguraldi txarraren ondorioz, jaia gurutzaontzien terminalaren barrura eraman behar izan zen, bertan 1.500 pertsona inguruk parte hartu zutelarik.



### Praktikak enpresan programa.

Aurten ere, praktika-planaren alde egin dugu, portu-negozioan tituludun gazteak prestatzea helburu hartuta. Horri esker, 2024ko urrian, 5 bekadun sartu dira erakundeko sailetan, hain-bat eginkizunetan laguntzeko.



**BILBOKO PORTUA ETA ITSASADARRA FUNDAZIOA**  
**FUNDACIÓN PUERTO Y RÍA DE BILBAO**

## 2. Fundazioa osatzen duten bederatzi udalerrietako bakoitzaren ekimenez egindako jarduketak.

Kultura-, prestakuntza-, kirol- eta gizarte-arloekin lotutako programak dira, fundazioaren helburuekin bat datozenak. Programa horiek udalaren ekimenez eta antolaketaz soilik garatzen dira, edo udalerrri bakoitzean lan egiten duten kultura- eta kirol-arloko hainbat erakunderekin lankidetzan. Hona hemen jarduera horien adibide batzuk: udalerrietan barrena gidatutako ibilbideak, estropadak antolatzea, bela-trofeoak, piraguak mailegatzea, triatloiak, etab.

### **BPAren jarduketak:**

#### **Port center Bilboko Portuaren Dibulgazio Zentroa**

Teknologia, diseinua eta komunikazioa dira Port Centerren hiru zutabeak, Portuko Agintaritzak Bilboko Itsasadarra Itsas Museoan sustatu duen Bilboko portuaren dibulgazio-zentroa. Zentroak entretenimendu-osagai garrantzitsua duen helburu didaktikoa du.

Hezkuntza/entretanimendu eta irakaskuntza-erakargarri binomioek proposamena orekatzen dute.

#### **Nabigazio-kluba**

Era berean, Portuko Agintaritzak, Itsas Museoak eta Euskalduna Jaurgiak Belakluba bultzatu dute. Ekimen horren helburua da txikienek belaontzian nabigatzeko gogo hurbiltzea, eskalako ontzietan oinarrituta.

#### **Museo Marítimo Ría de Bilbao-Bilboko Itsasadarra Itsas Museoa**

2003an inauguratu zen, eta Portuko Agintaritzak berezko patroia da Bilboko Udalarekin, Bilboko Merkataritza Ganberarekin eta Bizkaiko Foru Aldundiarekin batera.

Behin baino gehiagotan, Bilboko Portuko zerbitzugunean, BPAk estropadak eta beste kirol-lehiaketa batzuk egiteko baimena eman du, bai eta Klubek, Elkarteek eta Toki-administrazioek antolatutako hainbat jarduerari buruzko ikastaroak eta jardunaldiak egiteko baimena ere (paddle surf, piraguak mailegatzea).



## Ekarpenak

BPAk ekarpenak egin dizkie honako erakunde eta organismo hauei:

- Santurtziko Udal Kirol Institutua, kirol-jarduna sustatzeko, BPAko profesionalen osasuna hobetzeko eta lantokiaren udalerrian aisialdirako eta sozializatzeko leku bat eskaintzeko.
- Bizkaia Bizkaialde Fundazioa, Bizkaiko kirola sustatzeko eta garatzeko.
- Athletic Club Fundazioa.
- Euskal Herriko Itsas Foroa, euskal itsas sektoreko enpresen lehiakortasuna ordezkatzeko, defendatzeko, finkatzeko, sustatzeko eta hobetzeko irabazi-asmorik gabeko erakundea.
- Euskadiko Mugikortasun eta Logistika Klusterra, irabazi-asmorik gabeko elkarte pribatua, egoitza Euskal Autonomia Erkidegoan duten enpresa eta erakundeak biltzen dituena, eta Mugikortasunaren, Logistikaren eta Garraio-sistema Adimendunen arloetan jarduten duena.
- Bilbao Turismo, S.A., Bilboko turismoa eta merkataritza sustatzeko.
- Ingeniariak - Deustu Estropada sustatzen duen kluba.
- Guggenheim Bilbao Museoa.
- Basket Bilbao Berri. K.S.A.
- Euskal Ontzi-jabeen Elkarte, zeinaren helburu nagusietako bat baita marinel promozio berriak prestatzea.
- Bilbao Metrópolis 30.

- ◆ Villes & Ports Nazioarteko Elkarte, portu-hirien garapenaren eragile publiko eta pribatuak biltzen dituen nazioarteko erakundea.
- ◆ Derandain Fundazioa.
- ◆ Asociación Ibilaldia Elkarte.

BPAk Asociación del Patronato del Apostolado del Mar de Bilbao – Stella Maris elkarte bultzatu eta babestu du. Elkarte hori irabazi-asmorik gabea da eta portuan atrakatzen duten ontzietako tripulaztaileak lehorrean artatzen ditu. Santurtziko eraikin bat erabiltzeko baimena. Arriluzeko Salbamendu Etxeko lokalak eta Zorrotzako biltegi bat Gurutze Gorriaren esku uztea, bere laguntza-zerbitzuetarako erabili ditzan.



- BParen ekarpena, Bilboko Portua eta Itsasadarra Fundazioari egindako ekarpenaz gain, **679 mila eurokoa** izan da, hau da, ustiapen-gastuen %1.
- Bestalde, Bilboko Portua eta Itsasadarra Fundazioari egin beharreko ekarpena I-34 atalean azaldu den helburua – **400 mila eurokoa** izan zen, BParen ustiapen-gastuen %**0,58**.



*I\_35 Portuaren eta hiriaren arteko interfasea hobetzeko programen edo proiektuen deskribapena, eta kontzeptu horretara bideratutako guztizko baliabide ekonomikoak: gastuak eta inbertsioak, guztizko gisa adierazita eurotan eta Portuko Agintaritzaren gastu eta inbertsio guztien ehuneko gisa.*

Portuaren eta hiriaren arteko interfasea hobetzeko gastuak, 2024an, **3.828 mila eurokoak** izan ziren, eta BParen gastu osoarekiko erlazioa, **%5,61**.

Portuaren eta hiriaren arteko interfasea hobetzeko gastuak eta inbertsioak (milaka €)	
1-Gastuak eta inbertsioak portuaren eta hiriaren arteko interfasea hobetzeko	3.828
2-Ustiapen-gastuak	68.174
Portu-Hiria interfasea / ustiapena %	<b>5,61 %</b>

*I\_36 Guztizko baliabide ekonomikoak: babesaren eta segurtasunaren arloan erabilitako gastuak eta inbertsioak, guztizko gisa adierazita eurotan eta Portuko Agintaritzaren gastu eta inbertsio guztien ehuneko gisa. Horiek osatzen dituzten partidak edo ekimenak deskribatzea.*

Segurtasun- eta babes-arloko gastuak, 2024an, **157 mila eurokoak** izan ziren, eta BParen gastu osoarekin izandako erlazioa, **%0,23koa**.

Babes- eta segurtasun-arloko gastuak eta inbertsioak (milaka €)	
1-Gastuak eta inbertsioak Segurtasuna eta babesa	157
2-Ustiapen-gastuak	68.174
Babesa eta segurtasuna / Ustiapena %	<b>0,23%</b>

I\_37 Baliabide ekonomikoak guztira: ingurumenaren arloan erabilitako gastuak eta inbertsioak, eurotan guztira eta Portuko Agintaritzaren gastu eta inbertsio guztien ehuneko gisa adierazita. Horiek osatzen dituzten partidak edo ekimenak deskribatzea.

Ingurumen-arloan erabilitako gastuak eta inbertsioak **629 mila eurokoak** izan ziren 2024an, hau da, BPAREN ustiapen-gastu guztien **%0,92.. (G4-EN31)**

2024an, Kalitatea, Prebentzioa eta Ingurumena Kudeatzeko Sistema Integratua Bilboko Portuko Agintaritzaren prozesuen kudeaketarekin batera finkatu da. **(G4-56)**

Kalitateari dagokionez, Babes Sailarekin batera, prozedura, jarraibide eta dokumentu guztiak berrikusi eta eguneratu dira, **ISO 9001 Ziurtagiriaren** esparruan sartzeko. Hala, 2024an, BPAREN gainerako prozesuak bezala monitorizatu, ikuskatu eta optimizatu dira.

2024an, **EMAS** (Eco-Management and Audit Scheme, edo Ekokudeaketaren eta Ekoikuskapenaren Europako Araudia) ziurtagiria berritu da. Europar Batasuneko borondatezko araudia da, eta **SGMA** (Ingurumena Kudeatzeko Sistema) ezarri duten eta etengabe hobetzeko konpromisoa hartu duten erakundeak aintzatesten ditu, ikuskaritza independenteen bidez egiaztatua.

Ingurumen-gastuak eta -inbertsioak (milaka €)	
1- Ingurumeneko gastuak eta inbertsioak	629
2-Ustiapen-gastuak	68.174
% Ingurumena/Ustiapena	<b>0,92 %</b>



2

# ALDERDI EKONOMIKOA




## 2. ALDERDI EKONOMIKOA

### 2.1. Portuko Agintaritzaren Politika ekonomikoaren deskribapena

Atal honetan, Portuko Agintaritzaren egoera aztertzen da, bai eta inguruarekiko bere bilakaera ere, portuaren garapen sozioekonomikoan parte hartzen baitu. Portuko trafikoa eta haren bilakaera adierazle onak dira, bai barne-alderdiari dagokionez, bai portuaren eta inguruaren arteko harremanari dagokionez.

Honekin batera doazen koadroan eta grafikoan 2011-2024 aldi-ko trafikoak adierazten dira. 2008ko krisiaren eta 2011ko eta 2012ko portuko trafikoaren beherakadaren ondoren, ikus daiteke 2013an goranzko joera luzea hasi zela, eta hori hurrengo urteetan islatzen dela.

2020an, jaitsiera nabarmena izan zen, COVID-19ren krisiari lotua, eta are larriagoa urte amaieran zamaketako grebak eraginda. Jaitsiera hori oso nabarmena da, baina baita puntuala ere; izan ere, 2021ean portuko trafikoa berreskuratzen hasi zen, 2022-2024 urteetan ere jarraitu zuena.



Urtea	2013	2014	2015	2016	2017	2018	2019	2020	2021	2022	2023	2024
Miloi Tona	29,6	30,8	32,4	32,1	34,2	35,6	35,4	29,5	31,2	32,8	32,8	34,44

Jarrian, Portuko Agintaritzarekin lotutako hainbat alderdi sozioekonomiko kontuan hartzen dituzten adierazle batzuk zehazten dira, hala nola Ekonomia eta Finantza Egoera, inbertsioak, Zerbitzuak eta haien diru-sarrerak, sortutako Balioa eta Produktibitatea, bai eta Bilboko Portuko Zerbitzuen Enpresa Integratuarekin lotutako eragin ekonomiko eta soziala ere.

## 2.2. Egoera Ekonomiko-finantzarioa (G4-9) (G4-EC1) (G4-EC2)



*E\_01 Urteko errentagarritasuna, ekitaldiko emaitzaren ehuneko gisa adierazia batez besteko aktibo ez-korronteekiko, Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzko ekainaren 29ko 2/2012 Legearen azken xedapenetako hogeita bigarrenean emandako definizioaren arabera.*

Indarrean dagoen portu-araudiak, ekonomia- eta finantza-alderdiari dagokionez, Portuko Agintaritzaren autosufizientzia ekonomikoa eta iraunkortasuna ezartzen ditu Oinarrizko helburu gisa, eta arrazoizko errentagarritasuna ezartzen du Enpresa-helburu gisa, garraioaren intermodalitateko zerbitzuak emateko helburu nagusiarekin bateragarria dena.

Portuei eta Nabigazio Zibilari buruzko Legearen Testu Bategina onartzen duen irailaren 5eko 2/2011 Legegintzako Errege Dekretuaren 157. artikulua Portuko Agintaritzaren errentagarritasuna **a/b** zatitzearen zatidura gisa definitzen du:

- a) **Ekitaldiko emaitza** zergen ondoren, honako hauek izan ezik: ibilgetuaren narriadura eta besterentzeengatiko emaitza eta ohiz kanpoko beste emaitza batzuk, bai eta jarritako edo jasotako Portuen Arteko Konpentsazio Funtsetan saldua ere.
- b) **Ekitaldiko batez besteko aktibo ez-korronte garbia**, honako hauek izan ezik: uneko ibilgetua, ekitaldian zehar inolako jarduerarik garatu ez den lursail eta ondasun naturalei dagokien ibilgetua, zerga geroratuen ondoriozko aktiboak eta zordun komertzial ez-korronteak.

2024		
a	EKITALDIKO EMAITZA (Milaka €)	14.299
b	BATEZ BESTEKO AKTIBO EZ-KORRONTE GARBIA (Milaka €)	920.117

$$\text{ERRENTAGARRITASUNA} = (a / b) \times 100$$

$$\text{ERRENTAGARRITASUNA} = 1,55 \%$$

E\_02 Gutxienez azken hiru urteetan, EBITDAren bilakaera eurotan adierazita, mugitutako tona guztiena, EBITDA ratioarena mugitutako tona guztiena eta EBITDAren aldakuntza-ehunekoarena, aurreko ekitaldiarekiko (abendua 31n itxia) ehuneko gisa adierazia.

Enpresa-eremuan asko erabiltzen den adierazleetako bat EBITDA (*Earnings Before Interest, Taxes, Depreciation and Amortization*) da, hau da, interes, zerga, balio-galera eta amortizazioen aurreko mozkinak, enpresa baten negozio-emaizaren ideia argia ematen duena. Horiek lortzeko datuak BParen kontabilitatetik hartzen dira, milaka eurotan.

	2024
<b>a</b> Negozio-zifraren zenbateko garbia	76.738
<b>b</b> Ustiapeneko beste diru-sarrera batzuk (jasotako Kontserbazio-funtsaren zenbatekoa izan ezik)	1.934
<b>c</b> Langile-gastuak	17.122
<b>d</b> Beste ustiapen-gastu batzuk (emandako Kontserbazio-funtsaren zenbatekoa izan ezik)	22.528

	2020	2021	2022	2023	2024
<b>EBITDA (Milaka €)</b>	27.249	32.381	30.826	33.320	39.022
<b>Lekuz aldatutako tonak (Tn)</b>	29.544	31.182	32.767	32.802	34.591
<b>EBITDA / Tonak (€/Tn)</b>	0,92	1,04	0,94	1,02	1,13
<b>EBITDAren bilakaera (n/n-1)</b>	0,75	1,19	0,95	1,08	1,17

**EBITDA (milaka €) = (a + b) - (c + d)**  
**EBITDA = 39.022 milaka €**



**E\_03** Zorraren zerbitzua, honela adierazita:  $100 \times (\text{Zorraren amortizazioa} + \text{Interesak}) / \text{Cash Flow}$ .

**E\_04** Jarduerarik gabeko aktiboak, ekitaldian zehar jarduerarik gabeko lur eta ondasun natural gisa zehaztuak, balio ekonomiko, sozial edo ingurumenekoan jar daitezkeenak, ekitaldiko batez besteko aktibo ez-korrante garbiaren gaineko kontabilitate-balio garbiaren ehuneko gisa adierazita.

Finantzei dagokienez, Zorraren Zerbitzua

	2024
Jarduerarik gabeko lursailak (Milaka €)	74.787
Batez besteko aktibo ez-korrante garbia (Milaka €)	920.117
RATIOA (%)	<b>8,13</b>

	2024
Amortizazioak (Milaka €)	4.743
Interesak (Milaka €)	683
<b>BATURA</b>	<b>5.426</b>
Cash Flow (Milaka €)	40.189
<b>RATIOA (%)</b>	<b>13,50</b>

**ZORRAREN ZERBITZUA =  $100 \times (\text{Amortizazioa} + \text{Interesak}) / \text{Cash Flow}$**

**ZORRAREN ZERBITZUA = 13,50 %**

Aktiboei dagokienez, 2024an jarduerarik izan ez zuten eta balio ekonomikoa, soziala edo ingurumenekoa emateko erreserban dauden zenbait lursail daude. Horien zenbatekoa jarraian adierazten da, batez besteko aktibo ez-korrante garbien guztizkoarekin lotuta.

**E\_05** Ustiapen-gastuen bilakaera, gutxienez azken hiru urteetan, ustiapeneko diru-sarrerari dagokienez.

	2020	2021	2022	2023	2024
Ustiapen-gastuak (Milaka €)	63.027	60.512	63.640	65.518	68.174
Ustiapeneko diru-sarrerak (Milaka €)	58.960	63.157	64.910	68.760	76.738
RATIOA (%)	<b>106</b>	<b>96</b>	<b>98</b>	<b>95</b>	<b>89</b>

BParen finantza-egoeretan ageri dira Estatuko Portuen Erakunde Publikoa (EPEP), Europako Inbertsio Bankua eta Europako Er-kidegoa. **(G4-17)**

## 2.3. Inbertsioen Maila eta Egitura

E\_06 Portuko Agintaritzaren kargurako inbertsio publikoaren bilakaera, gutxienez azken hiru urteetan, Cash-Flowarekiko. (G4-EC4)

	2020	2021	2022	2023	2024
Inbertsio publikoa (Milaka €)	10.098	44.482	34.248	18.852	31.775
Cash Flow (Milaka €)	25.972	32.597	30.383	33.369	40.189
RATIOA (%)	39	136	113	56	79

### (G4-EC9)

Portuko zerbitzuen enpresa integratuaren barruan, zeinaren eskema funtzionala I-14 **zerbitzu eta emakidak** ataleko koadroan adierazten baita, funtsezkoa da Lankidetzeta Publiko-Pribatua. Lankidetzeta horretan, Portuko Agintaritzak portu-jarduera kontrolatzen eta bultzatzen du, eta oinarrizko azpiegitura guztiak, dikeak, dragatzeak, kaiak eta lehorreko sarbideak hornitzen ditu; enpresa pribatuek, berriz, kaiak gaitzen dituzte, hornitzen dituzte, bere instalazio espezifikoak garatzen dituzte eta zerbitzuak zuzenean ematen dizkiete Portuko bezeroei, Ontzia eta Salgaia.


Bilboko Portuan, Portuko Agintaritzaren eta enpresa pribatuen inbertsio-ahalegina garrantzitsua izan da, honako adierazle hauetan eta 2020-2024 aldian izandako bilakaeran egiazta daitekeen bezala.

BPAren inbertsioan Europar Batasunaren ekarpena sartzen da.

E\_07 Besteren inbertsioaren bilakaera, gutxienez azken hiru urteetan, Portuko Agintaritzaren kargurako inbertsio publikoaren aurrean. .

	2020	2021	2022	2023	2024
Inbertsio pribatua (Milaka €)	-	-	-	-	-
Inbertsio publikoa (Milaka €)	10.098	44.482	34.248	18.852	31.775
RATIOA (%)	-	-	-	-	-

*E\_08 Aktiboak berritzea, ekitaldiko batez besteko aktibo ez-korrante garbiarekiko urteko inbertsio-bolumenaren erlazio gisa adierazita (Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzko ekainaren 29ko 2/2012 Legearen arabera).*



	2024
Inbertsio publikoa (Milaka €)	31.775
Batez besteko aktibo ez-korrante garbia (Milaka €)	920.117
RATIOA (%)	<b>3,45</b>

## 2.4. Negozioa eta Zerbitzuak

*E\_09 Okupazio- eta jarduera-tasen diru-sarreraren bilakaera, gutxienez azken hiru urteetan, baita horietako bakoitzaren ehunekoa ere negozio-zifraren zenbaiteko garbiarekiko (NZZG).*



Enpresa pribatuak zerbitzuak ematea errazteko, BPAk terminal espezifikoak okupatzeko eta horietan jarduera pribatuak egiteko baimena ematen du.

Aurreko atalean enpresa pribatuak inbertsioetan duen partaidetza adierazi da. Partaidetza hori emakidetan zerbitzuak ematearekin osatzen da, eta BPAk emakidetatik eratorritako Okupazio- eta Jarduera-tasen ondoriozko diru-sarrerak (milaka eurotan) BPAren negozio-zifra osoarekin erlazionatzen dituen adierazlearen bidez kuantifika daiteke.

	2020	2021	2022	2023	2024
<b>NZZG (Milaka €)</b>	58.960	63.157	64.911	68.760	76.738
<b>Okupazio T. (Milaka €)</b>	20.209	22.150	22.427	23.394	27.416
<b>100 x (Okupazio T. / NZZG)</b>	<b>34%</b>	<b>35%</b>	<b>34,55%</b>	<b>33,88%</b>	<b>35,73</b>
<b>Jarduera Guztira. (Milaka €)</b>	5.614	6.088	5.848	6.074	6.711
<b>100 x (Jarduera Guztira / NZZG)</b>	<b>9,5%</b>	<b>9,6%</b>	<b>9%</b>	<b>8,83%</b>	<b>8,74</b>

*E\_10 Merkataritza-erabilera duen lurreko zerbitzu-eremuko (emakidetarako azalera) metro koadroko mugitutako tonen bilakaera, gutxienez azken hiru urteetan.*

	2020	2021	2022	2023	2024
<b>Mugitutako tonak guztira (t) (Milakotan)</b>	29.544 .083	31.182.511	32.766.593	32.802.413	34.441.525
<b>Emakidetarako azalera (m<sup>2</sup>) (Milakotan)</b>	3.262.316	3.262.316	3.262.316	4.300.917	4.340.917
<b>Tonak / m<sup>2</sup></b>	<b>9,06</b>	<b>9,56</b>	<b>10,04</b>	<b>7,63</b>	<b>7,93</b>

*E\_11 Kaiaren metro linealeko mugitutako tonen bilakaera, gutxienez azken hiru urteetan. Kai aktibotzat hartzen da azken hiru urteetan jarduera erregistratu duena.*

	2020	2021	2022	2023	2024
<b>Mugitutako tonak guztira (t) (Milakotan)</b>	30.034.927	31.182.511	32.766.593	32.802.413	34.441.525
<b>Kaiaren metro lineal aktiboak</b>	14.204	14.451	14.843	14.303	15.486
<b>Tonak / m</b>	<b>2.114</b>	<b>2.158</b>	<b>2.208</b>	<b>2.293</b>	<b>2.224</b>

Portuen arteko konparazio-azterketak egiteko eta produktibitate-helburuak finkatzeko, mugitutako tonak merkataritza-erabilerako portu-azaleraren metro koadroekin eta jardunean dauden kaien metro linealekin erlazionatzen dituzten adierazleak erabiltzen dira.

## 2.5. Sortutako balioa eta produktibitatea

### (G4-EC1)

Barne-kontrolerako zein antzeko beste jarduera-zentro batzuekin alderatzeko, interesgarriak dira langile-kopuruari buruzko emaitzak definitzen dituzten adierazleak, eta, horien artean, gehien erabiltzen direnak jarraian adierazten direnak dira.



*E\_12 Langile bakoitzeko negozio-zifraren zenbateko garbiaren bilakaera, gutxienez azken hiru urteetan (urteko batez besteko plantilla).*

	2020	2021	2022	2023	2024
<b>NZZG (Milaka €)</b>	58.960	63.157	64.190	68.760	76.738
<b>Urteko batez besteko plantilla</b>	<b>264</b>	<b>258</b>	<b>265</b>	<b>275</b>	<b>278</b>
<b>NZZG (milaka €) / langile-kopurua</b>	<b>223</b>	<b>245</b>	<b>242</b>	<b>250</b>	<b>276</b>

*E\_13 Langile bakoitzeko EBITDAren bilakaera, gutxienez azken hiru urteetan (urteko batez besteko plantilla).*

	2020	2021	2022	2023	2024
<b>EBITDA (Milaka €)</b>	27.249	32.381	30.826	33.320	39.022
<b>Urteko batez besteko plantilla</b>	<b>264</b>	<b>258</b>	<b>265</b>	<b>275</b>	<b>278</b>
<b>EBITDA (milaka €) / langile-kopurua</b>	<b>103</b>	<b>125</b>	<b>116</b>	<b>121</b>	<b>141</b>

## 2.6. Eragin Ekonomiko-soziala

*E\_14 Portu-komunitateak zuzeneko, zeharkako eta eragindako enpleguen kopuruaren kalkulua, kalkulu hori egiteko jarraitutako azterketa eta metodologia aipatuz.*

*E\_15 Portu-komunitatearen balio erantsi gordinaren zenbatespena, kalkulu hori egiteko jarraitu den azterketa eta metodologia aipatuz.*

	Zuzenak	Zeharkakoak	Eragindakoak	Portua, GUZTIRA	Bizkaia %	Euskadi %
<b>Enplegua</b>	<b>4.700</b>	<b>3.900</b>	<b>2.900</b>	<b>11.500</b>	<b>2,53</b>	<b>1,3</b>
<b>BPG</b>	338	334	210	882	2,55	1,29

### (G4-EC7) (G4-EC8)

Gizarteak osotasun gisa hartzen du portua, administrazio publikoek eta enpresa pribatuek osatutako zerbitzu-enpresa integratu gisa, 2.2 atalean adierazi den bezala.


Eragin ekonomikoari buruzko azterlanek zehazten dute zein den portuak probintzia, eskualde edo herrialde bateko jarduera orokorrean duen partaidetza, eta balio dute eta erabili izan dira bai Gizarteari portuaren garrantzia jakinarazteko eta laguntza ekonomikoak eta sozialak jasotzeko, bai barne-kalitatearen kudeaketa indartzeko benchmarkingaren bidez, beste portu batzuekin alderatuta.

Eragin sozioekonomikoaren oinarrizko adierazleak enpleguen sorrerari eta Balio Erantsi Gordinari buruzkoak dira, probintziaren, eskualdearen edo herrialdearen guztizko balioekin alderatuta.

Eragin zuzenak zehazteko azterlanak portu-zerbitzuen enpresa integratuaren elementu sozioekonomikoen azterketan eta kuantifikazioan oinarritu dira, bai eta Euskal Autonomia Erkidegoko input-output tauletan eragindako zeharkako eraginetan ere.

Portu enpresaren zuzeneko, zeharkako eta eragindako enplegu kopurua eta BPGa, oro har, erantsitako taulan adierazten dira.

Osagarri gisa, eta Bilboko Portuaren jardueraren garrantziaz ohartzeko, portuko enpleguen eta BPGren proportzioa adierazi da, Bizkaikoekin eta Euskadi-koekin alderatuta.

A horizontal decorative bar consisting of ten yellow squares of varying shades, located at the top of the page.

Datu horiek **Bilboko Portuaren ekarpen sozioekonomikoaren azterketa (2015)** azterlanetik atera dira, Portuko Agintaritzak eskatuta. Azterlan horretan, gainera, lau jardueraren eragina aztertu da: salgaien garraioa, industria-enpresak, bidaia-ontzien trafikoa eta inbertsioak; eta sei ekarpen-ikuspegitatik: kapital ekonomikoa, antolaketa-kapitala, ingurumen-kapitala, kapital soziala, harreman-kapitala eta ospe-kapitala.

**Kapital ekonomikoaren** barruan, ondorioztatzen da enpresek urtean 318,5 milioi euro aurrezten dituztela Bilboko Portuaren ondorioz, eta EAEk enklabe horren bidez egindako esportazioak/ inportazioak 13.162 milioi eurora iritsi zirela 2016an.

**Antolaketa-kapitalari** dagokionez, azpimarratu behar da Bilbao mugarik gabeko portua dela ontzi bat hartzeko orduan; bezeroek, ontziak eta salgaiak bere zerbitzuen kalitatea eta esperientzia profesionala baloratzen dute 10etik **7,3rekin**; enpresek 78.600 ordu baino gehiago aurreztu dituzte izapideetan, Portuko Agintaritzak e-puertobilbao plataforma martxan jartzeari esker; eta mundu osoko 900 porturekin konektatuta dago.

**Ingurumen-kapitalari** dagokionez, azpimarratzen da instalazioetan bildutako hondakinen **%48** baliozgarri gisa sailkatzen direla; enpresen **%80k** neurriak ezarri dituzte elektrizitate-kontsumoa murrizteko. Urteko egunen **%99,5ean** airearen kalitatea ona edo onargarria da ibaiertzeko udalerrietan, eta 3.150 milioi litro ur ez

ziren kutsatu 2011-2015 aldian hondakin arriskutsuen bilketak eraginda.

**Kapital sozialean** hiru puntu nabarmentzen dira: Bizkaiko ikasleek **%5,3k** Portua ezagutu zuten 2014an, Ezagutu Portua programaren bidez; langabeentzako online prestakuntza-programaren laneratze-ratioa **%46** da itsasertzeko udalerrietan; eta 1993-2016 aldian 830.000 metro koadro garatu dira azpiegitura sozialetan.

Bestalde, **harremanen kapitalean**, 2.800 eragile publiko eta pribatuk baino gehiagok dute harremana harekin, eta 60 aliatu ditu nazioarteko proiektuak garatzeko. Eta, azkenik, ospe-kapitalean, portuaren bezero diren enpresen gogobetetze-indize orokorra **%75** da, eta herritarren **%80k** balorazio ona edo oso ona du.

Azterlanaren azterketaren ondorio orokorra da Bilboko Portua Bizkaiko eta EAE osoko ekonomiaren funtsezko eragilea dela, eta aberastasuna eta enplegua sortzen laguntzen duela, euskal enpresa-sareari nazioarteko merkatu berrietara irekitzen lagunduz.

3

# ALDERDI SOZIALA



## 3. ALDERDI SOZIALA

### 3.1. Portuko Agintaritzaren Giza Kapitala

#### Portuko Agintaritzaren giza baliabideen politika (G4-EC3)

BParen Interes-taldeen artean, bertako langileena nabarmentzen da. Portuko Agintaritzak, Erakunde Publiko batek baimentzen dituen askatasun-mailekin, beti Helburu ezarri du Giza Baliabideen politika positibo eta arretatsua, Administrazioaren berezko mugak eta zurruntasunak gaindituko dituen, Giza Baliabideen kudeaketa aurreratua aplikatuz.

Ilido horretan, "**Gaitasunen araberako Kudeaketa**" ereduaren aplikazioak kontzeptu berriak sartzen ditu, giza baliabideen kudeaketa malgutzea errazten dutenak, enpresaren antolamendu-beharretara egokitu ahal izateko. Konpetentzien araberako kudeaketaren printzipioak honako hauek dira:



(G4-LA10) (G4-LA11)

1. Giza baliabideak funtsezko inputa dira enpresaren estrategia definitzeko.
2. Gaitasunak dira Giza Baliabideen aktibo nagusia.
3. Lanpostua ez da ezinbesteko zerbait erakundean.
4. Konpentsazioa gaitasunetan eta jarduketan oinarrituta egin behar da.

Lanpostuen kudeaketa estatistikotik pertsonen jardunaren beste dinamika batera igarotzen da. Horregatik, gaitasunen araberako kudeaketak inplikazio ugari ditu: Hautaketan, Karrera-planetan, Mugigarritasun Funtzionalean, Sailkapen Profesional desberdinean eta sailkapen horretara egokitutako Ordainsari-sisteman.

Era berean, eta eremu sozialagoan, pertsonen ongizatea (osasun-prestazioak), gizarte-, kultura- eta jolas-jarduerak eta gizarte-laguntzak eta -prestazioak (Pentsio-plana, Ikasketa-laguntzak) hartzen dira kontuan (G4-LA8)

**Enplegua Portuko Agintaritzan (G4-9) (G4-10) (G4-11) (G4-LA1)**

*S\_01 Portuko Agintaritzako langileen guztizko kopurua.*

	2020	2021	2022	2023	2024
Hitzarmenetik kanpo	32	31	32	33	<b>33</b>
Hitzarmenaren barruan	232	227	233	242	<b>245</b>
<b>GUZTIRA</b>	<b>264</b>	<b>258</b>	<b>265</b>	<b>275</b>	<b>278</b>

	2020	2021	2022	2023	2024
Urteko batez besteko langilekopurua	264	258	265	275	<b>278</b>

*S\_02 Aldi baterako langileen ehunekoa, langile finko guztiekiko. Adierazle hau kalkulatzeko, aldi baterako langileak zenbatzerakoan ez dira kontuan hartuko produkzioaren zirkunstantzien arabera baldintzatutako kontratuak.*

	2020	2021	2022	2023	2024
Behin-behineko langileen %	11,6	8	8	10	<b>14,75</b>

*S\_03 Langileen banaketa, jarduera-eremuen arabera. Arlo horiek honela ulertuta: polizia-zerbitzuari atxikitako langileak, mantentze-lanetako langileak, hitzarmeneko bulegoko langileak eta hitzarmenetik kanpo dauden bulegoko.*

Presidentetza	2	<b>0,7%</b>
Aholkularitza Juridikoa eta Jabari Publikoa	17	<b>6,1%</b>
Eragiketak, Merkataritza eta Logistika	54	<b>19,4%</b>
Zuzendaritza	180	<b>64,7%</b>
Administrazioa eta Finantzak	15	<b>5,4%</b>
Giza Baliabideak eta Antolaketa	10	<b>3,6%</b>
<b>GUZTIRA</b>	<b>278</b>	<b>100%</b>

*S\_04 Hitzarmen kolektiboek estalitako langileen ehunekoa.*

	2020	2021	2022	2023	2024
Hitzarmenetik kanpo	12%	12%	12%	12%	<b>14,4%</b>
Hitzarmenaren barruan	88%	88%	88%	88%	<b>85,6%</b>

## Barne komunikazioa eta parte-hartzea

### S\_05 Langileak ordezkatzeko eta horiek zuzendaritzarekin komunikatzeko mekanismoak. . (G4-HR4)

- ⇒ Enpresa Batzordea, bileren aldizkakotasuna ezarri gabe eta aztertu beharreko gaiak ordezkari handi goa eskatzen dutenean.
- ⇒ Hainbat lan-batzorde, aztertu beharreko gaien arabera:
  - Enpresa-akordioaren jarraipeneko.
  - Lokala Gaitasunen arabera Kudeaketarako.
  - Gizarte-ekintza.
  - Hautaketa-epaimahaiak eta barne-sustapenak.
  - Laneko Segurtasuna eta Osasuna.
  - Prestakuntza Batzordea.

### S\_06 Langileek Portuko Agintaritzaren ekoizpen-prozesuen hobekuntza teknikoki parte hartzeko mekanismoak (iradokizun-sistemak, jardura koordinatuzko aldizkako bilerak, kalitate-taldeak, etab.). (G4-LA5)

Kalitatea, prebentzioa eta ingurumena kudeatzeko sistema integratuak prozedura oso zehatzak gaitzen ditu (gorabeherak, desadostasunak eta abar jakinaraztea), portuko jarduerarekin lotutako alderdiak jakinarazteko edo transmititzeko.

Gainera, komite eta batzorde hauek daude :

- ⇒ Gaitasunen Kudeaketarako Tokiko Batzordea.
- ⇒ Enpresa-akordioaren jarraipen-batzordea.
- ⇒ Euskara Batzordea.
- ⇒ Gizarte Funtseko Batzordea.
- ⇒ Prestakuntza Batzordea.
- ⇒ Enpresa Batzordea.

Azken hauteskunde sindikalen ondoren, honako hau da BPAko ordezkari sindikala:

Sindikatu	Ordezkari-kopurua
ELA	3
UGT	6
CCOO	2
LAB	2

- Batzorde desberdinetako ordezkari sindikala Enpresa Batzordeko gehiengoan edo ordezkari-mailaren arabera zehazten da.
- Portuko Agintaritzaren administrazio-kontseiluan ordezkari sindikal bat dago.

**Prestakuntza (G4-LA9)**

*S\_07 Prestakuntza-programak jarraitzen dituzten langileen ehunekoak, hitzarmenaren barruko eta kanpoko langileak bereizita.*

2024. urtean, **208** langilek hartu zuten parte prestakuntza-programetan; horietatik **174** hitzarmenekoak dira, %**85,6** talde horretakoak eta **34** langile hitzarmenetik kanpo daude, hau da, talde horren %**85**.

	%
Hitzarmenaren barruan	<b>85,6</b>
Hitzarmenetik kanpo	<b>85</b>

*S\_08 Langile bakoitzeko prestakuntza-orduen batez bestekoaren bilakaera, hitzarmen barruko eta kanpoko langileak bereizita.*

2024an, **16.067** trebakuntza-ordu eman ziren; **13.596,5** hitzarmenean sartzen diren langileentzat; eta **2.470,5** hitzarmenean sartzen ez direnentzat. Batez beste, langile bakoitzak **78,14** ordu izanen ditu hitzarmenean sartutakoentzat eta **72,66** ordu hitzarmenetik kanpokoentzat. Plantilla osoa kontuan hartuta, batez bestekoa **57,79** ordu da langile bakoitzeko.



	Orduak Guztira	Langile kop.	Batez beste-koak
Hitzarmenaren barruan	<b>13.596,5</b>	174	78,14
Hitzarmenetik kanpo	<b>2.470,5</b>	34	72,66

**S\_09** Abian diren prestakuntza-programen kopurua, gaitasunen araberako kudeaketa-sistemari dagokionez (gaur egun indarrean dagoen hitzarmen kolektiboarekin bat). **(G4-LA9) (G4-LA10)**

Izena	Parte-hartzaileak	Iraupena	Orduak Guztira
Kalitatea 1	3	16	48
Kalitatea 2	6	25	150
Merkataritza eta marketina 2	1	25	25
Erosketak eta hornidurak 1	7	16	112
Erosketak eta hornidurak 2	5	25	125
Kontabilitatea eta auditoretza 1	2	16	32
Kontabilitatea eta auditoretza 2	3	25	75
Arrantza-jardueren kudeaketa 1	4	16	64
Arrantza-jardueren kudeaketa 2	5	25	125
Jabari Publikoaren kudeaketa 1	17	16	272
Salgaien kudeaketa 1	5	16	80
Ekonomia, finantza eta aurrekontu kudeaketa 1	2	16	32
Ekonomia, finantza eta aurrekontu kudeaketa 2	2	25	50
Logistika eta intermodalitatea 1	2	16	32
Logistika eta intermodalitatea 2	1	25	25
Ingurumena 1	1	16	16
Ingurumena 2	5	25	125
Portuko araudia 1	7	16	112
Portuko araudia 2	4	25	100
Portuko eragiketak eta zerbitzuak 1	6	16	96
Portuko eragiketak eta zerbitzuak 2	10	25	250
Portuko eragiketak eta zerbitzuak 3.maila	4	90	360
Laneko arriskuen prebentzioa 1	1	16	16
Laneko arriskuen prebentzioa 2	3	25	75
Lan harremanak 1	2	16	32
Lan harremanak 2	6	25	150



	Parte-hartzaileak	Iraupena	Orduak Guztira
Sektorea eta portu-estrategia 1	7	16	112
Sektorea eta portu-estrategia 2	2	25	50
Sektorea eta portu-estrategia 3	4	45	180
Industria-segurtasuna 1	4	16	64
Industria-segurtasuna 2	7	25	175
Nabigazioari laguntzeko sistemak 1	2	16	32
Nabigazioari laguntzeko sistemak 2	8	25	200
Bidaiarien trafikoa 1	3	16	48
Bidaiarien trafikoa 2	3	25	75

**Plantillaren egitura eta ekitatea (G4-LA1) (G4-LA12)**

BPAk Estatuko Portuen eta Portuko Agintaritzen Berdintasun Plana betetzen du, honako helburu orokor hauekin: **(G4-LA13)**

- 1.- Emakumeen eta gizonen berdintasunerako konstituzio-eskubidearen eraginkortasunarekiko konpromisoa.
- 2.- Tratu- eta aukera-berdintasunaren printzipioa txertatzea bere politika guztietan. Printzipio horrek, zeharka, bere jarduera guztien berri emango du.
- 3.- Edozein bereizkeria-motaren biziraupena dakarten oztopoak kentzea, emakumeen eta gizonen arteko berdintasun eraginkorreko baldintzak eskaintzeko enplegu publiko korako sarbidean eta lanbide-karreraren garapenean.
- 4.- Norberaren bizitza, familia eta lana uztartzen laguntzea, lanbide-sustapenari kalterik egin gabe.
- 5.- Berdintasunaren arloko prestakuntza sustatzea, bai enplegu publikora iristeari dagokionez, bai karrera profesionalean zehar.
- 6.- Emakumeen eta gizonen presentzia orekatua sustatzea hautaketa- eta balorazio-organoetan.
- 7.- Sexu-jazarpenaren eta sexuan oinarritutako jazarpenaren aurkako babes-neurri eraginkorrak ezartzea.
- 8.- Neurri eraginkorrak ezartzea, sexuan oinarritutako edozein ordainsari-diskriminazio, zuzenekoa edo zeharkakoa, ezabatzeko.
- 9.- Aldian-aldian ebaluatzea berdintasun-printzipioaren eraginkortasuna, nork bere jarduera-eremuan.

*S\_10 Emakumeen ehunekoa langile guztiekiko.*

Emakumeen %, langile guztiekiko	<b>28,42 %</b>
---------------------------------	----------------

*S\_11 Hitzarmenera atxikita ez dauden emakumeen ehunekoa langile guztiekiko eta hitzarmenetik kanpoko langile guztiekiko.*

Hitzarmenera atxikita ez dauden emakumeen %, hitzarmenetik kanpoko langile guztiekiko	<b>36,84 %</b>
Hitzarmenera atxikita ez dauden emakumeen % langile guztiekiko	<b>5,04 %</b>

*S\_12 50 urtetik gorako langile finkoen ehunekoa.*

50 urtetik gorako langile finkoen %	<b>54,44 %</b>
-------------------------------------	----------------

*S\_13 30 urtetik beherako langile finkoen ehunekoa.*

30 urtetik beherako langile finkoen %	<b>1,48 %</b>
---------------------------------------	---------------

Gizonak	199
Emakumeak	79
<b>GUZTIRA</b>	<b>278</b>

### Laneko segurtasuna eta osasuna (G4-LA5)

Bilboko Portuko Agintaritzaren egituraren barruan dauden lau arloetako bat da Prebentzio Saileko Segurtasun Arloa, eta Prebentziorako Batzorde Delegatuak proposatuta, bere Prebentzio Zerbitzua eratzean, Laneko Arriskuei Aurrea Hartzeko Legeak aurreikusten dituen modalitateen artean garatzea erabaki zuen. Horretarako, lokal independenteak eta ekipamendu egokiak daude, indarrean dagoen araudiak zehazten duen bezala, arlo horien funtzioak behar bezala garatzeko.

**Segurtasun Arloak** jarraian zehazten diren honako giza baliabide hauek ditu: :

- Alorreko Buru bat, Segurtasun eta Ingurumen Arlorako.
- Hiru arduradun eta bi teknikari Segurtasun eta Ingurumen Arlorako.
- Hamabi teknikari, eguneko 24 orduetan eta urteko 365 egunetan, Larrialdiak Kontrolatzeko Zentrorako.

**Segurtasun eta Ingurumen Alorreko burua**, bere lanpostuari datxekion eginkizunez gain, Prebentziorako Ordezko Batzordeko kidea da.

Batzorde hori 1997ko maiatzean eratu zen, eta BPAko Presidentetzak eta Zuzendaritzak eskuordetuta jarduten du. Hauek dira batzordearen eginkizun nagusiak:

- Arauak ezartzen dituen enpresa-betebeharrak betetzen direla zaintzea.
- Profesionalek prebentzio-neurriak diseinatzen, hartzen eta betetzen parte hartzeko duten eskubidea bermatzea.
- Arriskuen Ebaluazioa” eta “Prebentzio Plana” onartzea, baita bere gauzatzearen jarraipena eta kontrola ere.
- Laneko segurtasunari eta osasunari buruzko prestakuntza bultzatzea eta erraztea, eta dagozkion prestakuntza-planak onartzea.
- Enpresako hierarkia-maila guztiei bere bileretan hartutako erabakien berri ematea, eta, duten garrantziagatik batzordeak berak zuzenean gauzatu ezin dituen proposamenak Zuzendaritzari eta Presidentetzari aurkeztea.

Prebentzio Sailak “Prebentzioa Kudeatzeko Sistema” bat prestatu du, **ISO 45001**, arauan oinarritua, Laneko Segurtasun eta Osasunari buruzko baldintzak betetzen direla ziurtatzeko jarraitu beharreko metodologia definitzen eta dokumentatzen duena.

2007ko martxoaz geroztik, Lloyd’s Register Quality Assuranceren sistemaren ziurtagiria eskuratu du. 2024an, enpresa ziurtatzaileak egindako mantentze-ikuskaritzak behar bezala egin dira.


## Osasunaren sustapena

Bilboko Portuko Agintaritza, 2014ko azaroaren 24an, Luxenburgoko Adierazpenari atxikita dago, eta, beraz, lanean osasuna sustatzeko oinarriko printzipioak langileen osasunaren kudeaketan txertatzeko konpromisoa hartzen du, baita arriskuen prebentzioaren arloan dituen betebeharrak betetzeko konpromisoa ere.

Atxikimendu hori beste urrats bat da lan-ingurune osasungarri bat lortzeko, OMEk honela definitzen duena: "langileek eta goi-mailako pertsonalak etengabeko hobekuntza-prozesu bat aplikatzen laguntzen dutena, langile guztien osasuna, segurtasuna eta ongizatea eta lantokiaren jasangarritasuna babesteko eta sustatzeko, aldez aurretik zehaztutako premietan oinarrituta ezarritako gogoeta hauek kontuan hartuta":

- Laneko ingurune fisikoari dagozkion osasuna eta segurtasuna.
- Laneko ingurune psikosozialari lotutako osasuna, segurtasuna eta ongizatea, ingurune horren antolaketa eta lan-eremuaren kultura barne.
- Osasun-baliabide pertsonalak lan-ingurunean.
- Komunitateak nola bilatzen duen langileen, haien familien eta komunitateko beste kide batzuen osasuna hobetzea.

Atxikimendu horren ondorioz, **Portu Osasuntsua** izeneko asmo handiko proiektu bat jarri zen abian, Bilboko Portuko Agintaritzako langileen osasuna sustatzeko ardura duena.



## Portu Osasuntsua proiektuaren lan-ildoak, osasunaren baliabide pertsonalen eremuari buruzkoak

Lan-ingurune osasungarria lortzeko diseinatutako programa, kanpaina, estrategia eta planek osatzen dute proiektua. Jarduerak **PKP 03/03** prozeduraren arabera jaso eta sailkatzen dira, eta prebentzio-jardueraren plangintzan islatzen dira, **PKP 01/02** prozeduraren arabera.

Gaur egun, PO proiektuan hainbat jarduera egiten ditugu, guztiak osasun-baliabide pertsonaletan sartu ezin diren arren, konpartimentu estankorik egon ez dadin eta sailek jarduerak diseinatzea, martxan jartzea eta garatzea parte har dezaten saiatu da. Jarduerak honela banatzen dira:

**Plana:** planak PO proiektuaren aukera zehatz eta estrategiko bat identifikatu, deskribatu eta aztertzen du, proiektuaren bideragarritasun teknikoa, ekonomikoa eta finantzarioa aztertzen du, eta aukera hori errealitate zehatz eta finkatu bihurtzeko behar diren prozedura eta estrategia guztiak garatzen ditu. Plan hauek ditugu: :

- Berdintasun-plana
- Bizitza pertsonala eta profesionala kontziliatzeko plana.
- Lantokiko jazarpenaren aurkako plana (lanekoa eta sexuala).

**Estrategia:** estrategia da ekintza- eta kanpaina-multzoa (lehendik dauden programetan oinarrituta egon daitezkeenak), eta testuinguru jakin batean inplematutako dira, proposatutako helburua lortzeko. Denboran mugarik gabe hedatzen dira. Estrategia hauek ditugu:

### Ongizate psikosozialeko estrategia

- Arrisku psikosozialen ebaluazioa
- Lan-giroari buruzko inkesta
- Pertsonak garatzeko programa (Pertsonak garatuz)
- Ongizate emozionalen programa

### Ongizate soziokulturalerako estrategia

- Kultura-txangoen programa (itsasargiak, baleontziak, meatzaritza-harana, burdinola)
- Euskara sustatzeko programa
- Ingelesa sustatzeko programa
- Prestakuntza-programa
- Kultura zabaltzeko eta operara hurbiltzeko programa

### Ongizate kardiobaskularraren estrategia

- Elikadura osasungarriaren programa
- Ariketa fisikoaren programa
- Tabakoarekiko mendekotasuna gainditzeko programa

### Gaixotasunen prebentzio eta diagnostiko goiztiarrerako estrategia

- Prostatako minbizia
- Koloneko minbizia
- Biriketako TAC
- Ekografia abdominopelbikoa
- Gaixotasun tiroideoak
- Iktusaren prebentzioa
- Iskemia isilaren prebentzioa

### Sariak eta aintzatespenak

- **2016ko maiatzaren 10ean**, eta Enpresa Osasungarrien Espainiako Sarearen I. Topaketaren barruan, **lanean osasuna sustatzeko jardunbide egokien** diploma jasotzen duen Euskadiko lehen enpresa bihurtu ginen.
- **2017ko apirilaren 6an**, Bilboko Portuko Agintaritzak **AENOREk ematen duen Enpresa Osasuntsuaren ziurtagiria** lortu zuen. Ziurtagiri hori Estatuan erreferentzia den ziurtapen-erakundeak ematen du, eta langileen osasuna, ongizatea eta segurtasuna eta lan-giroaren jasangarritasuna sustatzen eta babesten dituen kudeaketa-sistema bat ezarri duela egiaztatzen du.
- **2020ko irailaren 25ean**, Kordoban antolatutako Prevencionar III. Sarien barruan, **Prevencionar-saludable Sariaren** (Enpresa Handiaren Kategorian) irabazleak izan ginen.
- **2023ko ekainaren 9an**, Ourenseko Laneko Segurtasun eta Osasunerako Institutu Nazionalak (INSST) antolatutako Enpresa Osasungarrien Espainiako Sarearen VIII. Topaketa Irekiaren esparruan, **Laneko Osasunaren Sustapenean (PST) Enpresa Osasuntsu eta Jasangarria Aintzatesteko diploma jasotzen duen Euskadiko lehen enpresa bihurtu ginen.**



**Laneko Segurtasuna eta Osasuna (G4-LA6) (G4-LA6) (G4-LA6)**

**S\_14 Istripuen urteko maiztasun-indizearen (MI) bilakaera, urte batean erregistratutako baidun istripuen kopuru gisa, urte horretan lan egindako ordu guztiekiko, honela kalkulatuta:**

$$MI = (\text{baja eragin duten istripuen guztizko kopurua} / \text{lan egindako orduen kopurua}) \times 10^6$$

	2019	2020	2021	2022	2023	2024
MI	2,60	5,42	0	2,51	0	0

**S\_15 Istripuen urteko larritasun-indizearen (LI) bilakaera, urte batean istripuagatik galdutako egun kopuruaren (galdutako egun baliodunen kopurua) zerrenda gisa adierazia, urte horretan lan egindako ordu guztiekiko, honela kalkulatuta:**

$$LI = (\text{istripuagatik galdutako lanaldien kopurua} / \text{lan egindako orduen kopurua}) \times 10^3$$

	2019	2020	2021	2022	2023	2024
LI	0,01	16,30	0	0,05	0	0

**S\_16 Urteko absentismo-indizearen bilakaera, bajagatik galdutako egun naturalen zerrenda gisa adierazia, langile kopuruarekiko, honela kalkulatuta:**

$$AI = (\text{bajagatik galdutako egun naturalen kopurua} \times 100) / (\text{langile-kopurua} \times 365)$$

	2019	2020	2021	2022	2023	2024
AI	4,24	6,99	6,39	5,92	7,77	6,93




<b>EZBEHAR-KOPURUAREN ESTATISTIKAK</b>	2019	2020	2021	2022	2023	2024
Istripuen kopurua, guztira	1	2	0	1	0	0
Larritasun-indizea	0,01	16,30	0	0,05	0	0
Maiztasun-indizea	2,60	5,42	0	2,51	0	0
Gaixotasun profesionalen kopurua	0	0	0	0	0	0
Gaixotasunagatik galdutako egunen kopurua	4.485	4.897	6.040	5.724	7.811	7.033
Gaixotasunagatiko lan-absentismoaren indizea	4,24	6,99	6,39	5,92	7,77	6,87
Istripuagatiko lan-absentismoaren indizea	0,01	0,05	0,05	0,12	0,03	0,04
Metatutako lan-absentismoaren indizea	4,25	7,04	6,44	6,04	7,80	6,91
Mediku-kontsulten kopurua	500	212	270	536	479	368

Izena	Parte-hartzai-leak	Iraupe-na	Or-duak, Guztira
PORTUKO POLIZIAKO LAGUNTZA-TALDEENTZAKO LARRIALDIEI ERANTZUTEKO IKASTAROA	8	6	48
PORTUKO POLIZIAKO LAGUNTZA-TALDEENTZAKO LARRIALDIEI ERANTZUTEKO IKASTAROA	10	6	60
OINARRIZKO MAILAKO IKASTAROA LAP-N	12	30	360
ERGONOMIA, ARRISKU PSIKOSOZIALAK ETA DESKONEXIO DIGITALA	9	3	27
Gune konfinatuak	9	6	54
Desgaitasun funtzionala duten pertsonen ebakuazioa	4	1,5	6
Desgaitasun funtzionala duten pertsonen ebakuazioa	5	1,5	7,5
Aniztasun funtzionala duten pertsonen ebakuazioa	6	2	18
Aniztasun funtzionala duten pertsonen ebakuazioa	6	2	12
Produktu kimikoen maneia	1	2,5	2,5
Lehen laguntza: oinarrizko bizi-euskarria eta desfibriladoreen erabilera	8	4	32
Lehen laguntza: oinarrizko bizi-euskarria eta desfibriladoreen erabilera	8	5	40
Lehen laguntza: oinarrizko bizi-euskarria eta desfibriladoreen erabilera	9	5	45
Lehen laguntza: oinarrizko bizi-euskarria eta desfibriladoreen erabilera	5	4	20
Gatazkak konpontzea	1	1	1
Gatazkak konpontzea	1	1	1
Gatazkak konpontzea	1	1	1
Gatazkak konpontzea	1	1	1
Gatazkak konpontzea	1	1	1
Gatazkak konpontzea	1	1	1
Gatazkak konpontzea	1	1	1
Gatazkak konpontzea	1	1	1
Gatazkak konpontzea	1	1	1
Gatazkak konpontzea	1	1	1
Gatazkak konpontzea	1	1	1
Hondakinen Edukiontzia Maneiatzeko Segurtasuna	6	2	12


S\_17 Ahalegina laneko arriskuen prebentzioaren arloko prestakuntzan, guztizko prestakuntza-orduen kopuru gisa adierazita, zati langile kopurua.

**750 ordu/278 langile kopurua= 2,7**



S\_18 Segurtasunaren arloko ariketen eta simulakroen kopurua eta babesaren arloko ariketen edo simulakroen kopurua.

	2024
Babes- eta segurtasun-arloko ariketen edo simulakroen kopurua	17



## 3.2. Enplegua eta Laneko Segurtasuna Portuko Komunitatea

### Enplegua Portuko Komunitatean

*S\_19 Salgaien itsas terminalek, bidaiarien itsas estazioek eta portuko zerbitzuak ematen dituzten enpresek guztira sortutako zuzeneko enpleguen gutxi gorabeherako kopurua.*

Salgaien itsas terminalek, bidaiarien itsas estazioek eta portuko zerbitzuak ematen dituzten enpresek guztira sortutako zuzeneko enpleguen kopuru zenbatetsia 4.700 da guztira. Datu hori BPAk 2015ean egindako azken inpaktu ekonomikotik atera da.

### Laneko Segurtasuna eta Prestakuntza zerbitzu eta Portuetako Emakidetan

*S\_20 Portu-zerbitzuen baldintza partikularren agirietan, emate-baldintzetan eta emakidako edo baimeneko tituluetan segurtasunari eta prestakuntzari buruz ezarritako baldintza edo eskakizunen deskribapen sintetikoa.*

Portu-zerbitzuen Baldintza Berezien Agiriek adierazten dute zerbitzu-emaileak laneko segurtasunari eta osasunari buruzko legeria bete beharko duela, eragiketarako segurtasun-baldintzetan egin ahal izateko behar beste giza baliabide eta baliabide material izan beharko dituela, eta Portuko Agintaritzaren Barne Larrialdietarako Planean integratu beharko dela eta, hala badagokio, Portua Babesteko Planean ere, bere giza baliabide eta baliabide material guztiekin.

Era berean, zerbitzu-emaileak bere langileen etengabeko prestakuntza mantendu beharko du, ezartzen diren prestakuntza-aurreikuspenen eta, hala badagokio, Portuko Agintaritzak zehazten dituen planen arabera. **(G4-LA14, G4-LA15, G4-LA16)**

*S\_21 Portu-komunitatean portuko laneko arriskuen prebentzioaren arloan dauden enpresa-jarduerak koordinatzeko mekanismoak deskribatzea.*

Bilboko Portuko Agintaritzak Enpresa-jardueren Koordinazioa egiten du ditu portu-esparruaren barruko enpresekin, portu jabea den aldetik. Koordinaziorako, Bilboko Portuko Agintaritzak web-atari bat du (CTAIMA), non enpresek portu-esparruko laneko arriskuetara sarbidea duten, bai eta enpresa-jarduerak koordinatzeko bete behar duten dokumentaziora ere.

Koordinazioa honela dago egituratuta:

- ◆ Jarduerari dagozkion kontratak.
- ◆ Jarduerari ez-dagozkion kontratak.
- ◆ Enpresa konkurrenteak.

*S\_22 Emakida edo baimen erregimenean dauden salgaien itsas terminalen eta bidaiarien itsas geltokien guztizko kopurua eta ehunekoa, bai eta ISO 45001 sistema duten portu- edo merkataritza-zerbitzuak emateko lizentzia edo baimena duten enpresena ere.*

**Laneko arriskuen prebentziorako ISO 45001 sistema ezarrita duten itsas terminalen eta zerbitzu-enpresen kopurua eta ehunekoa**

Terminal / zerbitzu mota	Guztizko kop. ISO 45001ekin	ISO 45001 dutenen %
Salgaien terminala	3	75
Bidaiarientzako terminala	1	100
Zamaketa-zerbitzua	3	75
MARPOL zerbitzua	1	100
Zerbitzu Tekniko Nautikoa	3	100

Bilboko Portuan **11** enpresak dute **ISO 45001** sistema.

Prebentzio Sailak aldizka biltzen du portu-barrutian instalatutako enpresetan kudeaketa-sistemak ezartzeari buruzko informazioa, galdetegi bidez.



*S\_23 Portuko Agintaritzak koordinatutako eta portu-komunitateari zuzendutako segurtasunari eta babesari buruzko prestakuntza-ekintza teknikoaren kopurua.*

2024an ez zen segurtasunari eta babesari buruzko **prestakuntza-ekintzarik** egin, Portuko Agintaritzak koordinatuta eta portu-komunitateari zuzenduta.

### 3.3. Ingurunearekiko Harremanak


#### Portuko Agintaritzaren politika gizarte-ingurunearekiko harremanetan

BPAk ingurunearekin duen erronka nagusia Portua-Hiria harremana da eta, hori konpontzeko, BPAk eta ibaiertzeko bederatzia udalerriek Fundación Puerto y Ría de Bilbao - Bilboko Portua eta Itsasadarra Fundazioa eratu dute. Fundazioaren xedea eta jarduerak **I-34** atalean zehaztu dira. Helburu zabal horien barruan, besteak beste, honako jarduera espezifiko hauek garatuko ditu, izaera sakona edo mugatzailea ez badute ere:

- ◆ Itsasadarraren itsasertzeko udalerrietan Bilboko Portuaren ondare historiko, kultural eta ekonomikoa ikertzea, kontserbatzea eta zabalitzea, arlo horri buruzko prestakuntza-jarduerak, lanak eta jarduketak egitea sustatuz, zuzenean edo beste ekimen publiko edo pribatu batzuekin lankidetzan, edo beste eremu batzuetako erakunde eta organismoekin lankidetzeta-programetan.
- ◆ Gizarte-, kultura- edo kirol-eremuetako jarduerak babesteko eta haiei laguntzeko hitzarmenak.
- ◆ Kongresuak eta Jardunaldi teknikoak, Mintegiak, sektore-topaketak eta prestakuntza-ikastaroak antolatzea portu-sektoreen barruan.
- ◆ Portu-eremuaren barruan, argitalpenak, bekak eta prestakuntzarako laguntzak ematea.
- ◆ Fundazioaren helburuak lortzeko beste edozein jarduera.

*S\_24 Portuko Agintaritzaren ekintzak desgaitasuna duen pertsonen irisgarritasun-beharrei erantzuteko (besteak beste: baldintzak bidaiarientzako zerbitzulizentzietan eta itsas geltokiekin lotutako emakida eta baimenetan; ekintza zehatzak eremu komunetan).*

Bilboko Portuko Agintaritzak bete egiten du indarrean dagoen araudia, desgaitasuna duen pertsonen itsas garraio bideetara iristeko dituzten beharrei dagokienez.



4

# INGURUMEN ALDERDIA



## 4. INGURUMEN ALDERDIA

### 4.1. Ingurumen Estrategia

Bilboko Portuko Agintaritzak lehentasunezko jardueratzat jotzen ditu **Kalitatearen, Prebentzioaren eta Ingurumenaren Kudeaketa** erakundearen barruan, eta halakotzat hartzen ditu:

- ◆ Bezeroen eta erabiltzaileen beharrak eta itxaropenak une oro asetzea
- ◆ Langileek eta tartean dauden beste sektore batzuek bere osasuna eta segurtasuna lan-eremuan babesteko duten eskubidea aitortzea.
- ◆ Bere jardueraren eta zerbitzuen ondorioz ingurumenean eragin negatiboa izan dezaketen alderdi esanguratsuen kontrol egokia egitea.



Ingurumenari buruzko atalean, BPAk bere jardueren esparruan ingurumena babesteko konpromisoa hartzen du, legezko eskakizunak, indarrean dauden araudia edo beste baldintza batzuk identifikatuz eta eguneratuz, bere zerbitzu eta jardueretan ingurumen-konpromisoak ezartzeko oinarrizko irizpide gisa. **(G4-42) (G4-EN27)** BPAk urteko prestakuntza-planak egiten ditu bere langileentzat, ezagutzak eguneratuta mantenduz eta hobetuz, ingurumen-alderdien kontrola bermatzeko, eta hobekuntza tekniko eta sistema-hobekuntza egokiak txertatuz.

Era berean, BPAk konpromisoa hartzen du bere jarduera eta zerbitzuetatik eratorritako ingurumen-alderdiak eta eragina izan dezaketenak identifikatzeko, horiek minimizatzeko eta kontrolatzeko neurri egokiak hartuz, eta bere ingurumen-politika enplegatuen, bezeroen, erabiltzaileen, inplikaturako hirugarrenen, Administrazioen eta, oro har, publikoaren eskura jarritz.

2024an, Portuko Agintaritzak ez du zehapenik jaso ingurumen-araudia ez betetzeagatik **(G4-EN29, G4-EN33, G4-EN34, G4-SO8)**.

## 4.2. Ingurumen-kudeaketa (G4-56)

Bilboko Portuko Agintaritzak **EMAS III** (Eco-Management and Audit Scheme, edo Ekokudeaketa eta Ekoauditoretzako Erkidegoko Erregelamendua) ziurtagiria berritu du 2024an, hamargarren urtez. **(G4-14)** Europar Batasuneko araudi hori borondatezkoa da, eta **IKS** (Ingurumena Kudeatzeko Sistema) bat ezarri duten eta etengabeko hobekuntzarako konpromisoa hartu duten erakundeak aintzatesten ditu, auditoria independenteen bidez egiaztatuta. Portuko Agintaritzarentzat, beste urrats bat da plan estrategikoan markatutako “**Ingurumen-esparruan erreferentziazko Portua**” izateko helburuaren barruan, bai eta erakundeak gizarte-erantzukizunarekin duen konpromisoa ere, enpresa publikoaren kanpoko erantzukizunak herritarren eskubideekin bat etor daitezzen. Aurten Portuko Agintaritzak hurrengo jarduerak gauzatu ditu:

### **Saneamendu sistema berriaren lanak aurrera doaz**

Bilboko Portuak bere instalazioetan dituen saneamendu-sarea eta arazketa -instalazioak 3 fasetan berritzeko prozesuarekin jarraitu du. Aurten, 2024an, amaitu da hutseko saneamendu-sistema berriaren I. fasea. Horri esker, nabarmen murriztuko da hondakin-urak eta ur industrialak itsasora isurtzeko guneen kopurua. II. faseko lanak aurrera doaz, eta datorren urtean amaituko dira.

### **Ingurumen Jardunbide Egokien hitzarmenak**

Portu-eremuan jarduera handiena sortzen duten enprekin sinatutako Ingurumen Jardunbide Egokien hitzarmen-kopuruari eutsi zaio. Hitzarmen horien bidez, enpresa sinatzaileek 6.800.000 € inguru inbertitu dituzte 2024an prozesuak hobetzeko, haien jarduerak eragiten dituen ingurumen-inpaktu negatiboak murrizteko. Hobekuntza horien artean, honako hauek azpimarratu behar dira: makineria hibridoa edo eragin-korragoa erosi izana, partikula barreiatuen emisioak murriztu izana ekipamendu berriak erosiz edo energia berriztagarria sortzeko zenbait enpresak panel fotovoltaikoak instalatu izana.

### **Kaien elektrifikazioa Bilboko Portuan, jatorri berriztagarrietako energiak elikatuta (BilbOPS proiektua)**

Europako Batzordeak Bilboko Portuko kaiak elektrifikatzeko proiektua hautatu du 2023an, **Connecting Europe Facility (CEF)** mekanismoaren barruan diruz laguntzen diren Europako 135 ekimenen artean. **BilbOPS** proiektua, Bilboko Portuko Agintaritzak garatua, Edukiontzien, Gurutzaontzien eta Ferryen kaiak elektrifikatzea helburu duen inbertsio energetikoa da, eta gure azpiegituran OPS (Onshore Power Supply), cold ironing deritzona, hedatuz, 11 konexio-punturekin. Aurten, lehenengo faseari ekin zaio, 2023ko abenduan esleitu ondoren, eta Zabalguneko Kai-mutur Nagusiko A5 kaiaren elektrifikazioan ardaztu da. 4,7 milioi euroko inbertsioa eskatuko du, eta Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoaren 3,9 milioiko dirulaguntza du. Aurreikuspenen arabera, 2026ko lehen hiruhilekoan jarriko da martxan.

Proiektu honi buruzko informazio guztia esteka honetan aurki daiteke :

<https://bilbops.bilbaoport.eus/>

2024. urtean, Kalitatearen, Prebentzioaren eta Ingurumenaren Kudeaketa Integratuko Sistemak beharrezko urratsak egin ditu ISO14001-**EMAS III, ISO 9001** arauari lotutako ziurtagiriak berritzeko. Horrek sistemaren kudeatzaileentzako prestakuntza, prozedurak eta jarraibideak berrikustea eta GAP analisi bat egitea ekarri du.

Era berean, prebentzioaren eta ingurumenaren arloarekin lankidetzat estuan, behar bezala ikuskatu da BPA, AENORen Antolamendu **Osasungarriaren Kudeaketa Sistemaren** jarraibideen arabera. Horrela, “Portu Osasuntsua” izeneko proiektuko ekintza guztiek erreferentzia-esparru bat dute jarraipena egiteko eta helburuak definitzeko, etengabeko hobekuntzako prozesu batean oinarrituta. Gure bezeroen esparruan, enpresa emakidadunek behar bezala berritu dute Bilboko Portuko zerbitzuaren kalitatearen erreferentziala.

Erreferentzialak kalitate-jarraibide batzuk ezartzen ditu portuko jardunaren alderdiei, eraginkortasunari, instalazioen mantentze-lanei, bezeroaren gogobetetzeari eta komunikazio telematikoei buruz. Hauek dira ziurtatutako enpresak:

Berritze horrek berekin dakar jarduera-tasari dagokion hobaria mantentzea. Azkenik, bezeroekin jarraituz, **“Ontzi-ustiatzaile Konpainientzako Zerbitzu Kalitatearen Erreferentziala”** atalean ziurtagiria berritu dute honako enpresa hauek: Mediterranean Shipping Company, S.A. (MSC), MSC Crociere, S.A., S.L.U., RCL Cruises - Royal Caribbean eta RCL Cruises - Celebrity Cruises.

Ontzi-ustiatzaileek ematen dituzten zerbitzuen kalitatea hobetzeko prozesu horrekin batera, itsasontziaren tasan dagokion hobaria ematen da.

Enpresa	Erreferentzial mota
Servicios Logísticos Portuarios, S.A. (SLP)	Ontziratutako gabea/Ohikoa
Terminales Portuarias, S.A. (TEPSA)	Ontziratutako gabea
CSP Iberian Bilbao Terminal	Edukiontzia
Estaciones de Servicio de Guipúzcoa, S.A. (ESERGUI)	Ontziratutako gabea
Bergé Marítima Bilbao, S.L.	Ontziratutako gabea/Ohikoa/Ro-ro
Consignaciones Toro y Betolaza, S.A.	Ontziratutako gabea/Ohikoa
Petróleos del Norte, S.A. (PETRONOR)	Ontziratutako gabea
Exolum Bilbao	Ontziratutako gabea
Bunge Ibérica	Ontziratutako gabea
Sociedad Auxiliar Punta Sollana (SAPS)	Ontziratutako gabea
Bahía de Bizkaia Gas	Ontziratutako gabea
Haizea Wind	Ohikoa
Mediterranean Shipping Company, S.A. (MSC)	Ontzi-konpainia
RCL Cruises - Royal Caribbean	Ontzi-konpainia
RCL Cruises - Celebrity Cruises	Ontzi-konpainia

**A\_01** *Gutzizko baliabide ekonomikoak: gastuak eta, hala bada-gokio, inbertsioak, EMAS erregelamenduaren, ISO14001: 2015 arauaren edo PEOs ziurtagiriaren arabera Portuko Agintaritzaren ingurumen-kudeaketako sistema bat ezartzeari, ziurtatzeari eta mantentzeari lotutakoak, guztizko gisa adierazita eurotan eta Portuko Agintaritzaren gastu eta inbertsio guztien ehuneko gisa.*

Aurretik esan den bezala, BPAk **ISO14001-EMAS III** arauari lotutako ziurtagiriak ditu, eta, beraz, ingurumen-kudeaketako sistema ezarri, ziurtatu eta mantentzeko erabilitako baliabide ekonomikoak **4.695 €** izan ziren 2024an **(G4-EN31)**

**A\_03** *Lurreko eta uretako eremu komunak garbitzeko garbiketaren gastuak, zerbitzu-eremuko metro koadro bakoitzeko mila euro gisa adierazita.*

2024an, lurreko eremu komunei eta ur-xaflari dagokien garbiketaren gastu osoa **1.612.189,57 €** izan da, hondakinen kudeaketa barne. **(G4-EC9) (G4-EN31)**

Lurra garbitzeko gastua	1.569.934,17	€
Zerbitzugunearen azalera	4.340.917	m <sup>2</sup>
<b>Gastua / Azalera</b>	<b>0,36</b>	<b>€/m<sup>2</sup></b>
Ura garbitzeko gastua	42.255,40	€
1. Eremuaren azalera	19.196.000	m <sup>2</sup>
<b>Gastua / Azalera</b>	<b>0,002</b>	<b>€/m<sup>2</sup></b>

**A\_02** *Gutzizko baliabide ekonomikoak: ingurumen-monitorizazioko eta -karakterizazioko gastuak eta inbertsioak, guztizko gisa adierazita eurotan eta Portuko Agintaritzaren gastu eta inbertsio guztien ehuneko gisa. Kontzeptu honetan sartzen dira neurtzeko sistemei, neurketa-kanpainei eta inventario- eta karakterizazio-proiektuei lotutako gastuak eta inbertsioak, trafikoari eta portuko jarduerari lotutakoak.*

2024an, BPAk **1.160.000 €** erabili zituen ingurumen-monitorizaziorako eta -karakterizaziorako. Ingurumen-karakterizaziorako gastuak izan ziren, hau da, BParen gastu guztien **%1,70**. Uraren eta sedimentuen kalitatea, airearen kalitatea eta zaratak karakterizatu eta neurtu dira. **(G4-EN31)**

Uraren kalitateari dagokionez, BPAk portuko **zaintza biologikoko plan** bat garatzen du, Euskal Herriko Unibertsitatearekin lankidetzan. Bilboko Portuko urak Euskal Autonomia Erkidegoko trantsizio-uren eta kostaldeko uren egoera ekologikoaren jarraipena egiteko sarean sartuta daude. **(G4-EN6)**

Horrez gain, airearen eta akustikaren kalitatea zaintzeko programa bat ere egiten du. Horretarako, estazio meteorologiko automatiko batek eta bi neurketa-kabina finkok osatutako kontrol-sare bat du, bai eta monitorizazio akustikoko bi terminal ere.

**A\_04** *Ingurumen-prestakuntza, Portuko Agintaritzaren plantillan dauden langileen ehuneko gisa adierazita, eta portuan garatzen dituzten eginkizunekin bat datorren Portuko Agintaritzak egiaztatutako ingurumen-prestakuntza jaso dutenak.*

2024an, Portuko Agintaritzako langileen **100 %** ek ingurumen-trebakuntza jaso zuen.



### 4.3. Airearen Kalitatea

**A\_05** Portuko emisio-foku nagusien (puntualak eta lausoak) deskribapen sintetikoa, emisio esanguratsuak dakartzatenak, hala nola: portu-azpiegiturak eraikitzea, eraistea eta mantentzea, portuko jardunari lotutako makinaren emisioak, ibilgailuen zirkulazioko motorren emisioak portu-instalazioetan, atrakatutako ontziak, ontziratutako gabeko gai solidoen erabilera edo biltegitratzea, edo portuko jarduerarekin lotutako beste batzuk.

Portuko isurtze-foku nagusiak (puntualak eta lausoak) hautsezko materialak aire zabalean biltegitratzeari, berokuntza-tximiniei eta Santurtziko Portuaren eta Luzuero lurmuturraren arteko industrialdean dauden enpresen tximiniei buruzkoak dira.

**A\_06** Portuko Agintaritzak erregistratutako kexa edo salaketen kopuruaren bilakaera, gutxienez azken hiru urteetan, portuko interes-taldeek (portu-komunitateak, hiriguneak, administrazioak, etab.) egindakoak hauts-emisioei edo, oro har, airearen kalitateari dagokienez. Kexak kudeatzeko sistema sistemati-zatu bat izatea.

2024an ez da **inolako** kexarik jaso hauts-emisioei edo airearen kalitateari buruz. Portuko Agintaritzak ez du prozedura espezifikorik in-guru-men-kexak jaso eta kudeatzeko.

	2020	2021	2022	2023	2024
<b>Kexa-kopurua</b>	1	0	0	0	0

Hurrengo koadroan, portuan dauden emisio-fokuak eta horien garrantzia (1 garrantzitsuena) erakusten dira. **(G4-EN30)**

Jarduera mota	Garrantzia	Foku kopurua
Ontziratutako gabeko salgai solidoak aire zabalean bilte-	1	3
Ontziratutako gabeko salgaiak bitarteko konbentzionalen bidez maneiatzea	2	3
Ontziratutako gabeko salgaiak estali gabeko sistema bere-zien bidez maneiatzea	-	-
Emakidetako industria-jarduerak	3	6
Itsasontzietako kaskoak garbitzea eta pintatzea	-	-
Obrak	4	-
Olana gabeko kamioien kutxetatik datozen isuriak	6	-
Ibilgailuen motorren isuriak	5	-
Atrakatutako itsasontzietatik eta gurutzaontzietatik datozen isuriak	7	-

**A\_07** *Portuko Agintaritzak portu osoaren jarduerarekin lotutako emisioak kontrolatzeko ezarritako neurrien deskribapen sintetikoa, neurri administratiboak, operatiboak edo teknikoak izan, hala nola ingurumen-arauak lantzea, portua zaintzeko zerbitzuak ingurumen-jarduna kontrolatzea, ingurumen-parametroak neurtzea, hauts-itxurako salgaiak maneiatzeko mugak, edo beste ekimen batzuk.*

Portuko Agintaritzak ezarritako neurriak, portu osoaren jarduerarekin lotutako **isuriak** kontrolatzeko.

- Isurketa atmosferikoen arloko arauzko baimenen eta jakinarazpenen jarraipena egitea portuko operadoreei.
- Jardunbide egokien gidak eta borondatezko ingurumen-kodeak.
- Portuko Agintaritzako teknikariek kaia zuzenean ikuskatzea.
- Airearen kalitatearen parametroak denbora errealean neurtzeko sistemak daude, aldizkako kanpainak egiteaz gain.
- Portuko oinplanoko jarduera berrantolatzea, emisio-fokuak eremu sentikorretatik urruntzeko.
- Ingurumen-jardunbide egokien hitzarmenak sinatzea.
- Hauts-emisioak kontrolatzeari lotutako neurri tekniko espezifikoak, hala nola ontziratu gabeko gaien pilaketak eta bideak ureztatzeko sistemak.

Portuko Agintaritzak, emakiden eta zerbitzu-operadoreen eskaera aurkeztean, **Ingurumen Jardunbide Egokien Hitzarmena** sinatzea eskatzen du. **(G4-EN32)**. BPA hainbat azterlan eta txosten egiten ari da portu osoaren jarduerarekin lotutako airera egiten diren emisioak kontrolatzeko eta horien jarraipena egiteko, besteak beste: **(G4-EN27)**

- Bilboko Portuko ingurumena zaintzeko programa: Airearen kalitatea eta akustika, Tecnalia, 2024ko urteko txostena.
- Urteko Ingurumen-adierazpena.
- Produktuaren Ingurumen-adierazpena, Bilboko Portu osoko eragiketen Bizi-zikloaren Azterketan oinarritua.
- 2024ko Karbono-aztarna

BPAk **emakidadunei eta kontratistei eska dakizkiekeen ingurumen-baldintzen protokoloak** ditu, isuri atmosferikoen kudeaketari buruzko atal espezifikoko batekin.

**A\_08** Portuko Agintaritzak abian jarritako ekimenen deskribapen laburra, portuko operatiboak airearen kalitatean duen eragina baloratzeko, eta egindako azterlan edo kanpainen guztizko kopurua. Portuko Agintaritzak airearen kalitatearen jarraipena egiteko dituen ekipo operatiboaren deskribapen eskematikoa, horien guztizko kopurua, neurtutako parametroak, etengabe edo geroratuta neurtzen duten, eta kokatuta dauden eremua adierazita.

**Airearen kalitatea kontrolatzeko estazioen sarea**

	Jabetza <sup>1</sup>	KUTSATZAILEAK						METEOROLOGIA <sup>2</sup>					
		P. Sed.	NO <sub>2</sub>	PM <sub>10</sub>	PM <sub>2,5</sub>	SO <sub>2</sub>	Zarata	DV	VV	T	H	P	
AIREAREN KALITATEA	Kontradikea	BPA	x		x								
	Santurtzi	BPA	x		x	x	x						
	Areeta	BPA		x	x		x						
	Meteo	BPA						x	x	x	x	x	
	Santurtzi	EJ		x	x	x	x	x	x				
	Algorta	EJ		x	x	x	x	x	x	x	x	x	
	Gurutzaontzien terminala	BPA	x										
	Zierbena	EJ		x	x				x	x	x	x	x
ZARATA	Kontrol Zentroa	BPA											
	El Puerto Auzoa	Partikularra											

Bilboko Portuko Agintaritzaren airearen kalitatea kontrolatzeko estazioen sarea Estazio Meteorologiko Automatiko batek eta neurtzeko bi kabina finkok (Areeta eta Santurtzi) osatzen dute, kostu txikiko sentsoze batzuekin batera. Sareak portu-esparruan dauden baldintza klimatologikoak ezagutzeko behar den informazioa ematen du, baita partikulen kontzentrazioa (partikula jalkigarriak PM<sub>10</sub>, PM<sub>2,5</sub>, eta SO<sub>2</sub> ere, denbora errealean.

Halaber, Eusko Jaurlaritzaren **airearen kalitatea zaintzeko sareak** ematen dituen datuak erabiltzen dira, zehazki Santurtzi, Zierbena eta Nautikako estazioei dagozkienak, Bilboko Portuko jardueren eragina aurreikus daitekeen eremuan daudelako.

Estazio Meteorologikoak, Analizatzaileak eta L.K.Z.-aren txostenek ematen duten informazioa jaso ondoren, datuen arteko elkar-konparazioa egiten da, eta horrela, partikulen sakabanaketaren bilakaeraren jarraipena egin daiteke den-bora errealean.

BPAk hitzarmen bat sinatu du Tecnaliarekin, **Airearen Kalitatea Zaintzeko Plan Orokorrari** laguntza teknikoa emateko. Bertan, lau hilean behin eta urtero txostenak ematen dituzte, kabinek bildutako datuekin.

Bilboko Portuko Agintaritzaren **Larrialdiak Kontrolatzeko Zentroak (LKZ)** Bilboko Portuan hautsezko salgaiekin egiten diren eragiketa guztien jarraipena egiten du, eta egunero txostenak egiten ditu. Txosten horietan, kaietan hautsezko kutsadura sor dezaketen salgaiak horizontalean zein bertikalean garraiatzeko eragiketa guztiak jasotzen dira.



**A\_09** *Portuko airearen kalitate-parametroen balioa, hala nola urteko batez besteko balioak edo eguneko muga-balioa gainditzen den aldi-kopurua, portuko jarduerari dagokionez esanguratsuak diren kutsatzaileentzat: PM partikulak, partikula jalkigarriak, nitrogeno oxidoak eta sulfuro oxidoak.*

Hauek dira Tecnaliak airearen kalitateari buruz 2024an egindako **urteko txostenaren** ondorioak : **(G4-EN21) (G4-EN30)**

### PARTIKULA JALKIGARRIAK

2024an, erregistratutako partikula jalkigarrien mailak **159** mg/m<sup>2</sup> egunekoak izan dira Santurtzin eta **221** mg/m<sup>2</sup> egunekoak Kontradikean. Eusko Jaurilaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Sailaren 2021eko uztailaren 11ko Aginduari dagokionez, giza osasunerako esposizio-muga larritzat **300 mg/m<sup>2</sup>** eguneko jotzen dira, eta balio horiek esposizio-muga baino txikiagoak dira.

### PM<sub>10</sub> PARTIKULAK

- **Batez besteko kontzentrazioak hauek izan dira :** **23** mg/m<sup>3</sup> Areetan; **17** mg/m<sup>3</sup> Algortan ; **16** mg/m<sup>3</sup> Santurtzi-BPAn; **12** mg/m<sup>3</sup> Zierbenan eta **9** mg/m<sup>3</sup> Santurtzin (EJ) eta **5** mg/m<sup>3</sup> Kontradikean.

2024an, eguneko batez besteko muga-balioa lau aldiz baino ez da gainditu:

- **Eguneroko 50 µg/m<sup>3</sup> kontzentrazioak erregistratu dira:** **3** aldiz Areetako estazioan, eta **behin** Santurtziko APB kabinan. Zierbenan, Algortan, Santurtzi-EJn eta Kontradikean ez da **inoiz** mugabaliorik gainditu, baina urtean 35 aldiz erregistratu ahal izango direla ezarri da.

### PM<sub>2,5</sub> PARTIKULAK

Estazio bakar batean ere ez da gainditzen PM<sub>2,5</sub> (25 µg/m<sup>3</sup>), partikulen urteko muga-balioa, **8** µg/m<sup>3</sup> batez bestekoak lortu baitira Santurtzi-BPAn, **8** µg/m<sup>3</sup> Algortan eta **8** µg/m<sup>3</sup> Santurtzin (EJ).



### SUFRE DIOXIDOA (SO<sub>2</sub>)

Estazio bakar batean ere ez dira gainditu Errege Dekretuan ezarritako muga-balioak, ezta osasuna babesteko SO<sub>2</sub>-ren alerta-atalasea eta landaredia babesteko maila kritikoa ere, kontzentrazioak honako hauek izan baitira:

- **Urteko batez bestekoa:** 11 mg/m<sup>3</sup> Santurtzi-BPAn, 4 mg/m<sup>3</sup> Areetan eta 5 mg/m<sup>3</sup> Santurtzin (EJ) eta 5 mg/m<sup>3</sup> Algortan.

### PARTIKULEN EMISIO LAUSOAK

Estazio bakoitzean lortutako batezbestekoak konparatu dira, alderdi hauek kontuan hartuta:


- Ontziratutako gabeko salgaiak manipulatu diren orduen batezbestekoak (3.844 ordu)
- Ontziratutako gabeko salgaiak manipulatu ez diren orduen batezbestekoak (4.940 ordu)

Alderaketa horietatik Portuko jardueraren eragina interpreta daiteke. Hala ere, beti hartu behar da kontuan Portuko eta inguruko fokuetako isurketen aldakortasuna: industriak, kanpoko trafikoa eta Nerbioi Beheretik irits daitekeen kutsadura guztia. Gainera, eragin meteorologikoak ziurgabetasun-tarte bat sor dezake.

### NITROGENO DIOXIDOA (NO<sub>2</sub>)

Estazio bakar batean ere ez dira gainditu osasuna babesteko NO<sub>2</sub> alerta-ataria, ezta landaredia babesteko maila kritikoa ere, kontzentrazioak honako hauek izan baitira:

- **Urteko batez bestekoa:** 15 mg/m<sup>3</sup> Santurtzin (EJ), eta 10 mg/m<sup>3</sup> Zierbenan, 11 mg/m<sup>3</sup> Algortan eta 4 mg/m<sup>3</sup> Areetan.





2024ko ordu guztien urteko batez bestekoak alderatzen direnean ontziratutako gabeen mugimendua egon den orduen batezbestekoekin edo mugimendurik egon ez den orduen batezbestekoekin, ikusten da  $PM_{10}$  partikulen urteko batez bestekoa aldatu egiten dela estazio guztietan, ontziratutako gabeen mugimendua dagoenean.


Alde horiek nabarmenagoak dira neurketa-estazioa Portutik gertuago dagoenean.

## EMISIO LAUSOAK KUANTIFIKATZEKO SISTEMA

BPAk esleitu zuen portu-ingurunean sortutako  $PM_{10}$  partikulen emisio lausoak denbora errealean kuantifikatzeko gai den sistema bat instalatzeko eta abian jartzeko laguntza teknikoa. Hasierako fase batean, emisio-sentsoreen sare bat hedatu da portuko eremuan, eta immisio-sentsoreen sare bat inguruko eremuetan. Orain, berriz, datuen arteko erlazioa sortzen ari da (airearen kalitatea, meteorologia, portuko eragiketak, etab.), sare finkoek eta aldi baterakoek hartuak.

Proiektuaren azken helburua guztiz autonomoa den sistema bat garatzea da, BPAk erabakiak hartu ahal izan ditzan portuko jardueraren ondoriozko partikula lausoen ( $PM_{10}$ ) emisioek era-gindako inpaktuen estimazioaren aurrean, kostu txikiko sentsoreetan eta Machine Learning teknologian oinarrituta.

**MACHSENSE proiektua** Estatuko Portuen 4.0 funtsetara aurkeztu zen, eta merkataritza-aurreko fasean zeuden proiektuen artean hautatu zen, 500.000 euroko zuzkidurarekin.



## 4.4. Uraren Kalitatea

Ur-laminaren kalitatea zaintzea da portu batean gehien kontrolatzen den alderdietako bat, presio ugari eta askotarikoak jasotzen baititu.

**Uraren Esparru Zuzentaraua** edo Estatuko ordenamendu juridikoa aplikatuz eratorritako jarduerak ezartzeak uraren kalitatea hobeto zaintzea ekarriko du, eta, ondorioz, horretara bideratutako aurrekontuak handitzea **(G4-EN27)**

**A\_10** *Portuan dauden isurketa-foku nagusien deskribapena (puntualak eta lausoak), portuko dartsenetako uren eta jalkinen kalitatean eragin nabarmena dutenak, hala nola, euri-bideak, erretenak, hiriko isurketa-puntuak, ontziratutako gabeko salgai solidoekin jardutea, eta abar. Enpresek edo portuko jarduerak sortutako eta sortu gabeko isurketak bereiziz.*

Hurrengo taulan, portuan dauden uraren kutsadura-fokuak eta horien garrantzia erakusten dira (1 garrantzitsuagoa) **(G4-EN22)**



Isurketaren jatorria	Garrantzia
Ibaiak, errekek, euri-bideak edo erretenak	6
Tratatu gabeko euri-jariatzeak edo ureztatzeak, bideratu gabeak	2
Portu-emakidetako industria-isurketak	1
Obrak	7
Itsasontzietako arauz kanpoko isurketak	8
Ontziratutako gabeko solidoen zamalanetako isuriak	3
Itsasontzia kaian erregaiz betetzea eta zuzkitzea	4
Ontziratutako gabeko likidoen zamalanetan istripuzko isurketak	5

Portuko uren kalitatea okertzeko arrazoi nagusizat har daitezke ibaian gora ibaietara egindako isurketak, emakiden isurketak eta ustekabeko isurketak.

**2024an, ez da eragin nabarmenik izan duen isurketarik, baina 14 isurketa** (puntualak) identifikatu dira, portuko uren kalitatean eta dartsenetako sedimentuetan eragin handirik izan ez dutenak. **(G4-EN24)**

**A\_11** *Portuko Agintaritzak portu osoaren jarduerarekin lotutako isurketak kontrolatzeko ezarritako neurrien deskribapen sintetikoa, izan neurri administratiboak, operatiboak edo teknikoak (garbiketa-puntuak eta mantentze-lan kontrolatuak, saneamendu-sarearen hobekuntzak, zaintza operatiboa, etab.). Bereziki, portua dagoen arroaren plan hidrologikoan berariaz jasota dauden neurriak tratatuko dira. .*

Uren kalitatea zaintzeko eta kontrolatzeko dauden eskakizunei erantzuteko, Bilboko Portuko Agintaritzak bi mekanismo mota ezarri ditu (**G4-EN27**)

- Jatorri puntualen emisioen aurrean erantzuteko mekanismoak.
- Jatorri lausoen emisioen aurrean erantzuteko mekanismoak.

Egokitzapen-plan bat egin da, portu-barrutian sortzen diren hondakin-ur guztiak Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoaren kolektoreak jasotzeko, edo portuko jabari publikoko uretan isuri aurretik tratatzeko.

Estolderia-sarearen eta iturri igorleen egoeraren **Azterketa eta Inbentarioa** egin ondoren, 2007. urtean, Prebentzio eta Ingurumen Saila harremanetan jarri zen Eusko Jaurlaritzako Uraren Euskal Agentziarekin, hondakin-urak lehorretik itsasora isurtzeko baimena lortzeko.

2013ko martxoaren 13an, URA - Uraren Euskal Agentziaren zuzendari nagusiaren 2013ko **otsailaren 15eko EBAZPENA** jaso zen. Haren bidez, BPAk eskatutako hiriko hondakin-urak lurretik itsasora isurtzeko baimena ematen da. Orduz geroztik, hainbat berrikuspen eskatu dira isurketa-puntuak aldatu ahala. Isurketa baimentzeko azken ebazpena **2022ko ur-tarrilean** jaso zen.

Halaber, BPAk portuko uren kalitatea hobetzeko eta kontrolatzeko hainbat neurri ezarri ditu, zehazki:

- ◆ Isurketak egiteko arauzko baimenen jarraipena egitea.
- ◆ Uraren eta sedimentuen kalitatea ezaugarritzeko aldizkako kanpainak.
- ◆ Ontziratu gabeko salgai solidoak kargatzeko/deskargatzeko jarraibide tekniko espezifikoak.
- ◆ Emakidak emateko baldintzetan hondakin-urak eta isurketak kudeatzeari buruzko ingurumen-betekizun espezifikoak.
- ◆ Jardunbide egokien hitzarmenak
- ◆ Itsas Barne Planak (IBP) onartu eta garatzea, itsas kutsadurak eragindako larrialdiei erantzuteko.
- ◆ Ustekabeko itsas kutsaduraren aurka borrokatzeko baliabide propioen hornidura hobetzea.

Urtero bezala, eta Zaintza Plana betez, maiatzean, eta emariak aukera ematen duen guztietan, isurketa-puntuetakozko araztegietakozko ur-laginak hartzen dira, Uraren Euskal Agentziara bidaltzeko.

**SANEAMENDU SISTEMA BERRIA**

BPAk hitzarmen bat sinatu du Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoarekin (BBUP) eta Uraren Euskal Agentziarekin (URA), Bilboko Portuan saneamendua Eraikitzeko Proiektua idazteko. Saneamendu-sarea eta haren instalazioetan banatuta dauden arazketa-instalazioak hiru fasetan berritzean datza proiektu hori. URA - Uraren Euskal Agentziak lehiaketara atera zuen 2022an obren lehen eta bigarren fasea, 24 milioi euroko inbertsioarekin, Bilboko Portuko Agintaritzarekin batera erdi bana finantzatuko duena, eta 2023an hasi ziren bi faseetako lanak. Aurten, 2024an, I. faseko lanak amaitu ziren, eta II. fasekoek, berriz, aurrera jarraitzen dute, eta datorren urtean amaituko dira.

Proiektuak, gainera, Europako finantzaketa du Next Generation funtsen bidez eta Suspertze, Transformazio eta Erresilientzia Planaren kargura, eta hondakin-uren bilketari **huts-sistema** bat emango dio, grabitatea edo bultzada erabiltzen duten ohiko uren orde.

Berrituko diren sareen helburua da **ur sanitarioen eta industrialen** kalitatea hobetzea itsasora isuri aurretik. Instalazio ugari daude, besteak beste, hobi septikoak tamaina txikiagoko isurketetarako, eta araztegiak, tratamendu desberdinekoak, industriakoak.

Sistema berriak kolektore-sare bat izango du, ur sanitarioak eta industrialak Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoak kudeatzen duen Galindoko HUA-ra bideratzeko. Hala, kutsatzeko ahalmen txikia duten euri-urak eta hozte prozesuetan erabiltzen direnak bakarrik isuriko dira itsasora.



- ◆ Saneamenduko soluzio integratua, 112 isurketa-puntu biltzen eta kentzen dituena.
- ◆ Hondakin-urak portuko hodi-biltzailearen puntu bakar batean biltzen eta isurtzen
- ◆ Azterketa-eremuan identifikatutako isurketa guztien konexioa aurreikusten da
- ◆ 86 enpresa

**A\_12** *Portuko uraren kalitatea ezaugarritzeko kanpainen kopurua eta deskribapen sintetikoa, baldin eta ez badira ingurumen-inpaktuaren adierazpenetik eratorritako betebeharren ondorio.*

Bilboko Portuko Agintaritzak, ahalik eta modurik zehatzenean ezagutzeko xedearekin, hainbat azterketa egin ditu uraren kalitateari buruz eta bere funtzionamenduko jardueren ondoriozko gorabeherak uraren gainean duten eraginari buruz. Horrez gain, portuko obrak hurrenez hurren gauzatzearen ondorioz ingurumen-agintari eskudunek adostutako Ingurumen Inpaktuaren Adierazpenetik eratorritako **Ingurumena Zaintzeko Programak** betetzen ditu. Azterlan horien artean, honako hauek daude **(G4-EN26) (G4-EN27)**

- ◆ **Bilboko Portuaren Zaintza Biologikorako Plana** eta Bilboko Portuan lasta-urek sartutako fitoplankton toxikoak izan ditzakeen arriskuen eta kudeaketan dituen ondorioen Ebaluazioa.
- ◆ Bilboko portu-ingurune **ingurumen-baldintzen, baldintza meteorologikoen eta baldintza ozeanografikoen** azterketa, hidrokarburoen balizko isurketen bilakaerari dagokionez.
- ◆ **BILBOIL programa:** Bilboko portuko uretan kutsatzaileak barreiatzeko eredia. Horren bidez, isurketa baten sakabanaketaren simulazio pertsonalizatua egin daiteke, kasuan kasuko produktuaren ezaugarriak, marearen egoerari buruzko datuak, haizearen abiadura eta norabidea eta haren irudikapena (ibilbideak, dentsitate-mapak) kontuan hartuta.
- ◆ EAEko kostaldeko eta trantsizioko **uren egoera ekologikoa.**
- ◆ Portuko **uraren kalitatearen** analisisa
- ◆ Portu-eremuetan **Uraren kalitatea kontrolatzeko programa** bat garatzea.



**A\_13** *Hondakin-uren bilketa eta tratamendua duen zerbitzugunearen azaleraren ehunekoak. Hondakin-urak udal-hodi biltzaile batera isurtzen direnean edo dartsenara isurtzen direnean eta isurtzeko baimena dutenean tratatuko direla ulertuko da.*

Zerbitzugunearen azaleraren **100%** hondakin-uren bilketa eta tratamendua daude, eta ur horiek araztu egiten dira edo Bilboko Ur Partzuergoaren hodi biltzaileetara konektatuta daude, ondoren tratatzeko **(G4-EN22)**

**A\_14** Isurketa bilketa eta tratamendua duen zerbitzugunearen azaleraren ehunekoa. Isurketa-urak tratatzen direla ulertuko da udal-hodi biltzailera isurtzen direnean, edo dartsenara isurtzen direnean eta dagokien isurketa-baimena dutenean.

Zerbitzugunearen azaleraren **9,33 %** Euri-uren bilketa eta tratamendua du.

**A\_16** Kutsaduraren ondoriozko larrialdiei erantzuteko Itsaso Barne Planak aktibatzea.

Bilboko Portuko Agintaritzak **Itsas Barne Plan** bat du 2015etik, istripuzko itsas kutsadurako gertakarietarako (IBP) **(G4-EN27)**

BPAk plan hori zuzendu, koordinatu eta abian jaritzeaz ardura du.

IBPa portu-eremuan aldaketa esanguratsuak gertatzen direnean eguneratzen da, Itsas Barne Plana aktibatuta ondoren, eta aldi behin gutxienez lau urteko maiztasunarekin.

Urtean 4 praktika egin dira erantzun-ekipoetarako,

**A\_15** Ur-lamina garbitzeko erabilitako baliabide teknikoek deskribapen eskematikoa, eta urtean bildutako flotatzaileen pisua.

Agintaritzak ur-xafla garbitzeko ontzi propioak ditu, eta, gainera, lankidetzak-hitzarmen bat du sinatuta Gurutze Gorriarekin.

Hondakinak kentzeko, BPAk baliabide hauek erabiltzen ditu:


- “HIRURAK BAT” ontzia; nabigazioa arriskuan jartzen duten noraezko objektuak kentzea. Maiztasuna ez dago zehaztuta; abisuen arabera edo BPAk objektu horiek detektatzen dituen erabiltzen da.
- URGARBI S.L. zerbitzu-enpresa ur-xaflaren ezohiko garbiketarako. Garbiketa hori astean behin egiten da, edo premiazkoa edo beharrezkoa den garbiketa bat egiteko eskatzen bazaie.

Udan, hau da, ekainean, uztailean, abuztuan eta irailan, astean 2 garbiketa egiten dituzte, oro har, ibaieretzeko udalerrietan (Santurtzi, Portugalete, Sestao edo Bilbo) herriko jaiak ospatzen direnean izan ezik. Hala koetan, garbiketa sarriago egiten da, jaietan hondakin plastiko eta hiri-hondakin gehiago sortzen baita.

⇒ 2024an, **85.460 kg** .hondakin flotatzaile geldo bildu ziren.

Tm-tan jasotako hondakinen pisua

**85,46**



**URGARBI**

BPAk **bitarteko material** hauek ditu isurketengatiko kontingentziei aurre egiteko:

- ◆ 1.250 m-ko hesi puzgarria eta hura puztu, maneiatu, hedatu eta finkatzeko behar den ekipamendua.
- ◆ Kasete trukagarrien skimmer 1
- ◆ 400 metroko hesi puzgarria puntu batean
- ◆ 400 m-ko hesi auto-puzgarria
- ◆ Kutsadurari eusteko mantak eta xurgatzaileak
- ◆ Olioak biltzeko kubeta biltzaileak
- ◆ Sakabanatzaileak aplikatzeko sistema eramangarria
- ◆ Evaristo de Churruca II atoiontzia
- ◆ Hirurak bat helburu anitzeko ontzia

Gainera, titularrak **enpresa** pribatuak edo erakunde publikoak diren beste baliabide batzuk daude.

- ◆ 22.150 m kutsaduraren aurkako hesiak
- ◆ Baliabideak dituzten ontziak (sakabanatzaileak, txanbergak)
- ◆ Ontzi laguntzaileak
- ◆ Skimmer-ak
- ◆ Material xurgatzaileak

**2024an** ez da aktibatu Itsas Barne Plana (IBP).

IBP aktibatzea ez dakarten ustekabeko isurketak BPAko ontziek garbitzen dituzte.

IBPa aktibatzea behar izan ez duten itsas kutsadurako gorabeheren kopurua	<b>14</b>
IBPa aktibatzea eskatu duten itsas kutsadurako larrialdien kopurua. Emakidaren batekorena, Portuko IBPa aktibatu beharrik gabe ("egoera 0")	<b>0</b>
Portuko IBPa aktibatzea behar izan duten itsas kutsadurako larrialdien kopurua ("egoera 0")	<b>0</b>
Itsas Plan Nazionala aktibatzea behar izan duten itsas kutsadurako larrialdien kopurua ("1. egoera edo goragokoa")	<b>0</b>

*A\_17 Portuko Agintaritzak edo Portuko Agintaritzaren titulartasuneko hodi biltzaileek isuritako hondakin-uren bolumena, motaren arabera banakatuta.*

Hondakin-uren isurketak sortzen dituzten BPAren jarduerak, hirikoak (HHU), industriakoak (IHU) edo mistoak, honako hauek dira:

- Sarbideak kontrolatzeko postuak (HHU)
- Aduanako bulegoak
- Bulegoak eta tailerrak (mistoak)

Hondakin-ur horiek udal-hodi biltzailera eta tratamendu propiora bideratuko dira.

**(G4-EN22)**

## 4.5. Zarata

Bilboko Portuko Agintaritzak monitorizazio akustikoa egiten du, “**Airearen eta zarataren kalitatea zaintzeko plana**” esparru-kontratuaren barruan. Gaur egun, Tecnaliarekin hitzarmena dauka, urtean zehar **Zierbenako udalerriko Kanpoko Abraren** eremuan eta BPAko **Larrialdiak Kontrolatzeko Zentroko** portu-instalazioen barruan erregistratu diren maila akustikoak neurtzeko kanpainak egiteko.

Santurtzi eta Zierbenako bi kokaleku definitu horietan, Zaraten 37/2003 Legea garatzen duen 2007ko urriaren 19ko 1367/2007 Errege Dekretuan definitutako kalitate-helburuen arabera ebaluatzen dira.

Bilboko Portuaren barruan, Kontrol Zentroaren kokalekuan (industria-lurzoruaren arabera ebaluatuta) eta Zierbenan (egoitza-lurzoruaren arabera ebaluatuta) erregistratutako soinu-mailek ez dute inpaktu akustikorik; izan ere, Portuko ustiapen-jarduerek ez dituzte gainditu aztertutako aldi bakoitzerako legezko mugak, ezarritako kalitate akustikoko helburuak betez.



*A\_18 Emisio akustiko esanguratsuak eragiten dituzten portuko isurtze-foku nagusien (puntualak eta lausoak) deskribapen sintetikoa.*

Taula honetan, portuan dauden zarata-fokuak eta horien garrantzia ageri dira (1 esanguratsuen).

Jarduera mota	Garrantzia
Kamioien trafikoa	2
Trenbideko trafikoa	5
Portuko makineria	3
Txatarra maneatzea	1
Edukiontziak maneatzea	4
RO-RO terminalen mugimendua	9
Emakidetako industria-jarduera	8
Atrakatutako ontziak	7
Obrak	6

*A\_19 Portuko Agintaritzak urtean zehar erregistratutako kexen edo salaketen kopurua, portuko interes-taldeek egindakoak (portu-komunitatea, hiriguneak, administrazioak, etab.), portuko jarduerak eragindako emisio akustikoei buruzkoak. Kexak kudeatzeko sistema sistematizatu bat izatea.*

Portuko Agintaritzak 2024an **ez du erregistratu** portuko jarduerak eragindako emisio akustikoei buruzko kexarik. Neurketa egokiak egin ziren, eta egiaztatu zen betetzen zirela zarataren legea garatzen duen 1367/2007 Errege Dekretuak ezarritako legezko mugak.

	2020	2021	2022	2023	2024
<b>Kexa-kopurua</b>	1	1	1	1	0

*A\_20 Portuaren egoerari buruzko deskribapena, zarata-mapa eta ekintza akustikoko plana egiteari dagokionez.*

**Lau neurketa-kanpaina** egiten dira, eta emaitzen txostenak egiten dira. Neurketa horiek eta Zaintza Orokorreko Planaren txostena ENACek egiaztatutako erakunde batek egiten ditu.

Egindako neurketen ondorioz, portu-barrutiko zarata-mapa lortzen da. Urteetan zehar egindako zarata-maparen eguneratzeei esker, 2004. urteaz geroztik lehen zarata-mapa egin zenetik izandako bilakaera egiaztatu ahal izan da.


Azken urteetan egindako hiru hilean behingo kanpainetan **ez da eragin** akustikorik izan Bilboko portuak Zierbena eta Santurtziko udalerrien eragin-eremuan egindako jardueren ondorioz, ez egunez, ez gauez. Kasu guztietan, 65 eta 55 dBA baino zarata-maila txikiagoak erregistratu dira, hurrenez hurren.



Bilboko Portua handitzeko Kai-mutur Nagusi berria eraikitzeko obren **Ingurumen-inpaktuaren Adierazpenari** lotutako zaintza-planak airearen kalitatearen kontrola barne hartzen du; horregatik, **2016an**, eragiketa aurreko fasean, **zarata-mapa eguneratu** zen, eta, laburpen gisa, nabarmendu behar da zarata-maparen 2015eko oinarritzko agertokiari lotutako mailek ez dutela inolako eraginik sortzen fatxadetan.

**2019an**, zarata-mapa eguneratu zen, Bilboko Portuaren zerbitzu-eremua antolatzeko **plan bereziaren aldaketa** dela-eta; izan ere, aldaketa hori Bilboko Portuaren esparruko jardueren hirigintza-erregulaziorako esparrua da.


Eguna aldia



Arratsalde aldia



Gaua aldia



**2023. urtean**, zarata-mapa eguneratu zen, **Kai-mutur Nagusiaren I. fasea Hedapena** delako, kontuan hartuta obra-fasean ezarritako zarata-fokuak. Mapa horrek, era berean, Kai-mutur Nagusiaren II. fasea handitzeko eragiketa-aurreko faserako zarata-mapa gisa balio du.

*A\_21 Portuko Agintaritzak erregistratutako kexen eta desadostasunen ondorioz identifikatu diren zarata-fokuen gainean aurten egindako jarduketaren kopurua eta jarduketa horien ezaugarriak.*

Hurrengo neurriak Portuko Agintaritzak ezarri ditu, portuko jarduerarekin lotutako emisio akustikoak kontrolatzeko.

- Akustika neurtzeko sare egonkorrak
- Kalitate akustikoa neurtzeko kanpainak.

## 4.6. Hondakinen Kudeaketa

Portu-barruti batean, hondakinak sortzen dituen agentearen araber, sailkapen hau ezar daiteke:

### LEHORREKO HONDAKINAK

Bilboko Portuko Agintaritzak zerbitzua ematen dien eremuak mantentzeko kontratatutako garbiketa-enpresak gaikako bilketa eta be-  
reizketa egiten du. Hasieran, birziklatu edo balioztatu daitezkeen hondakinak jasotzen dira.

Bilboko Portuko Agintaritzaren helburua da baliabide naturalak aprobetxatzen laguntzea eta ekonomia *zirkular baterako hondakinei eta lurzoru kutsatuei* buruzko **7/2022 Legearen** jarraibideak betetzea, ahal den guztietan birzikla edo baloriza daitezkeen hondakin horiek ezabatzea saihestuz.

Gainerako hondakinak **bi frakzioetan** bereizten dira, bata organikoa eta bestea inerteza, hondakindegira eraman ahal izateko, kudeatzaileak ezarritako onarpen-parametroak errespetatuz.


**952/1997 Errege Dekretuan** bildutako hondakin arriskutsuen zerrendan agertzen diren hondakinak, bai eta hondakin horiek edukitzen dituzten ontziak eta Europako Hondakinen Zerrendan daudenak ere, kudeatzaile baimendu batek bereizi eta kudeatzen ditu.

Bilboko Portuko Agintaritzak, Kalitatea, Segurtasuna eta Ingurumena Kudeatzeko Sistema Integratuaren prozeduretako bat betetzeko, bere instalazioetan sortutako hondakinak biltzeko eta kudeatzeko jarraibideak ditu. Jarraibide horietan zehazten da nola eta nork jaso behar dituen hondakinak, non biltegitatu behar diren aldi baterako eta nork kudeatu behar dituen.

### ITSASOKO HONDAKINAK (MARPOL)

BPAk baimendutako enpresa pribatu batek kudeatzen du itsas hondakinen (MARPOL) bilketa eta tratamendua. Erantsitako koadroan dago zehaztuta . **(G4-EN23)**

Eranskina	M <sup>3</sup>
I Hidrokarburoak	15.951
IV Ur Zikinak	432
V Zaborrak	10.109
<b>GUZTIRA</b>	<b>26.492</b>



**A\_22** *Portuko Agintaritzak sortzen dituen eta bereizi eta balorizatzen diren hondakinen ehunekoa, hondakin motaren arabera banakatuta (tona hondakin balorizatu mota / tona bildutako hondakin guztira) x 100)*

Portuko Agintaritzak bere instalazioetan sortutako hondakinen bolumenaren kontabilitatea egiten du, hondakin motaren arabera, eta balorizazio-prozesu batera igarotzen diren sortutako hondakinen bolumena kontabilizatzen du .

**(G4-EN2) (G4-EN23) (G4-EN25)**

Portuko Agintaritzak ez du instalazio propioetan eta bere ardurapeko zerbitzuetan (garbiketa barne) sortutako hondakinak minimizatzeko eta balorizatzeko planik.

Hondakin mota	Urtean zehar bildutako kantitatea Mkg-tan	Bildutako guztizkoaren gaineko ehunekoa
Geldoak	930	23,15 %
Ez arriskutsuak	4.003	99,65%
Arriskutsuak	13,95	0,35%

Hondakin mota	Bilketa bereizia (Tm hondakin bereziak / Tm sortutako hondakinak guztira) * 100	Balorizazioa (Tm hondakin baliotu / Tm sortutako hondakin guztira)* 100
Hiri-hondakin solidoak	76,50	48,08
Hondakin arriskutsuak	0,35	0,00
Olioak	0,04	-

**A\_23** *Portuaren barruan hondakinak sortzeko jarduera edo iturri nagusien deskribapen sintetikoa, hala nola arrantza-jarduerak (arrantza-tresnak, enbalajeak), Ontziratu gabeko salgai solidoen mugimendua (salgai-hondarrak operazioaren ondoren), eremu ludikoak, makineriaren mantentze-lanak edo hobi septikoetako lohiak, besteak beste.*

Portuko Agintaritzak IKSren barruan emakidek eta zerbitzuemaileek sortutako hondakinen bolumenaren eta motaren inventarioa eta karakterizazioa egiten du, ingurumen-inpaktua eta ho-rien kudeaketa garrantziaren arabera aztertzerakoan. Taula honetan, portuan dauden hondakin-iturriak eta horien garrantzia ageri dira. (1 garrantzitsuagoa).

Iturri- edo jarduera-mota	Garrantzia
MARPOL hondakinen entrega	1
Karga eta zamaketako hondakinak	4
Ontziratu gabeko solidoen mugimendu-ekorketen hondarrak	3
Kaiak, bideak eta eremu komunak garbitzea	2
Ur-laminaren garbiketa (solido flotatzaileak)	5
Ustekabeko isurketak garbitzea	6
Obrak	8
Hobi septikoak garbitzea	7

**A\_24** Portuko Agintaritzak portu-komunitateko hondakinen kudeaketa hobetzeko sustatutako ekimenak. Garbiguneak, hondakinak biltzeko programak, balorizazio-programak, eta abar izatea.

BPAk berezko hiru garbigune ditu portu-gunean, eta bertan uzten dira, izaeraren arabera, BPAk bere eraikinetan, tailerretan eta instalazioetan sortzen dituen hondakinak, bideak eta eremu komunak garbitzetik datozenak, bai eta larrialdi-egoeretan sortzen direnak ere:

- ◆ **Garbigune geldoak** (Landeta eta AZ 2-3): industria-hondakin geldoak, hiri-hondakinekin pareka daitezkeenak eta baliozta daitezkeenak. BPAk trinkogailu bat erabiltzen du hiri-hondakin solidoetarako eta beste bat papererako eta kar-oirako.
- ◆ **Garbigune hondakin arriskutsuak** (Higarillo): lanparak, berun-azidozko bateriak, pilak, olio erabilia, esprai agortuak, olioekin eta koipeekin kutsatutako materiala.

Kai ezberdinetan salgaien zamalanetan, maneiatzean eta garraioan sortutako hondakinak biltzeko puntuak daude.


Bilketa-puntu horiek kai edo terminal bakoitzeko arduradunekin adostu ziren, eta bilketa-baldintzak ezarri ziren (frakzio mota bakoitzaren **bereizketa zuzena**). Garbiketa-kontratak leku horietan bildu ditu bota diren hondakinak:

- 1º Birziklatu edo balorizatu daitezkeen hondakinak biltzen dira.
- 2º Bideen eta eremu komun garbiketako gainerako hondakinak bi zatitan banatzen dira, bata organikoa eta bestea geldoa, kudeatzailerak ezarritako onarpen-parametroak errespetatuz zabortegira eraman ahal izateko.

BPAk hondakinen legeak emakidatunei eta zerbitzu-emaileei ezarritzen dizkien administrazio-baldintzak betetzen direla egiaztatzeko prozesua ezarri du. **(G4-EN27)**



**Garbigune Landeta**



**Garbigune AZ 2-3**



**Garbigune Higarillo**

**DRAGATUTAKO MATERIALAREN KUDEAKETA**

*A\_25 Dragatutako materialari aplikatutako kudeaketa-mota, material hori IENBren dragatze-jarraibideen arabera tipifika daitekeen kategoria ba-koitzeko dragatutako materialaren bolumen gisa adierazita.*

Hauek izan dira 2024an egindako dragatzeak:

- Sakonera egokitzeagatiko dragatzeak;

Eremua	Bolumena (m <sup>3</sup> )	Area (m <sup>2</sup> )
Deustuko kanalaren iparraldeko eremuko mantentze-lanen dragatzea	14.780,9	8.593,5
Kai-mutur nagusiko 2. faseko tiraderen zanga berriro zehaztea (3 eremu)	6.687,4	5.494,9
Itsasadarraren Nabigazio Kanala dragatzea	27.537,1	76.321,6

Titsasoko sedimentuak dragatzea edo sakonerak mantentzeko edo hobetzeko dragatze-lanak eskatzen dituen itsas obra orok zehatz-mehatz betetzen ditu indarrean dagoen **Portuei buruzko Legearen Testu Bateginaren** aginduak eta **Itsas Estrategien Ministerio arteko Batzordeak** (2021) onartutako jarrai-bideak, dragatutako materiala karakterizatze eta itsasoko eta lurreko jabari publikoko uretan berriz kartzeko.



Dragatutako materialen **%100** esparru konfinatu baten barruan utzi dira, betelan orokor gisa, Kai-mutur Nagusia eraikitzeke obretako kaiko zabalgunekak egiteko, AZTIk alde aurretik ezaugarritu eta gero.

2024ko ekitaldian dragatutakoa guztira : **49.005,40 m<sup>3</sup>**

**A\_26** Babes-figuraren bat duten eremuak edo espezieak deskribatzea, portuaren ondoan edo portuko jabari publikoaren barruan daudenak: BIL, HBBE, BIC, Ramsar.

Gaur egun, Bilboko Portuak ez du ez du babes-figurarik duen eremurik edo espezierik, ondoan daudenak edo portuko jabari publikokoak. **(G4-EN11)**  
**(G4-EN12)**

**A\_27** Portuko eta ondoko eremuetako natura-ingurunearen karakterizazio- eta inbentario-lanak. Bereziki, portuko uren urpeko kartografia bionomikoaren eskuragarritasuna.

Portuko eta ondoko eremuetako natura-ingurunearen karakterizazio- eta inbentario-lanei dagokienez, BPAk honako lan hau egin zuen Euskal Herriko Unibertsitatearekin lankidetzan.

<b>Izena</b>	Bilboko Portuko Zaintza Biologikorako Plana
<b>Lekua</b>	Portua eta ondoko eremuak
<b>Egoera</b>	Garatuta
<b>Urtea</b>	2023
<b>Helburua</b>	Bilboko Abrako komunitate bentonikoen (flora eta fauna) bilakaeran hautemandako joera orokorreari buruzko balorazioa egitea.
<b>Deskribapena</b>	Portuko eta ondoko eremuetako natura-ingurunearen karakterizazio- eta inbentario-lanak, portuko uren urpeko kartografia bionomikoa dutela.

Bestalde, Lasta Urak Kudeatzeko Hitzarmena (BWMC) indarrean sartzearen ondorioz, Bilboko Portuko Agintaritzak, AZTI-rekin batera, erreferentziatzeko azterlan bat egin zuen portuan dagoen biodibertsitatea ezagutzeko, bereziki espezie inbaditzaileena:

- ◆ **Metodo genetikoetan oinarritua:** Azterlanak HEL-COM-OSPAR protokoloa egokitu zuen metodo genetikoetarako, espezieak errazago identifikatzeko.
- ◆ **Salbuespenak eskatzeko aukera:** Azterlanak dau den espezieei eta Portuaren ezaugarri buruzko datuak eman zituen, eta informazio hori baliagarria da salbuespenak eskatzeko.



BILBOKO PORTUKO ZAINZA BIOLOGIKORAKO PLANA




2023KO KANPAINA



**A\_28** Portuko Agintaritzak abiatutako natura-ingurunea berroneratzeko proiektuen deskribapen eskematikoa eta jarduketa horien kostuaren balorazioa euro-tan.


2024. urte honetan, urrats batzuk eman ditugu jada portu-ingurunea bernaturalizatzeko, biodibertsitatea leheneratzea sustatzen duten **3 proiektu pilotu** ezarriz. Horiek Berrikuntza Sailak bultzatu ditu, laguntza eman duten hainbat sailen laguntzarekin. Jarraian deskribatuko ditugu ekimen horiek



-  **ECONCRETEren COASTALOCK**
-  **LADICIMen SEACOND**
-  **OCEAN ECOSTRUCTURES**

**1. ECONCRETEren COASTALOCK**

**Ceballos Lurmuturreko** ezpondan prefabrikatutako hormigoizko pieza-multzo bat instalatu da, kostaldeko babes-eremuetan urpeko eta marearteko habitatak birsortzeko diseinatuak. Horren bidez, biodibertsitatea handitzea lortu nahi da, habitat desberdinak sortzen baitira, eta, hala, hainbat itsas espezieen bizitzarako beharrezkoak diren txokoak sortzen dira.



**2. SEACOND DE LADICIM**

Beste ekimen horren bidez, errefortzu ez-metalikoak dituzten EEHak dituzten hormigoizko arrezife artifizialak instalatu nahi dira, ingurune heterogeneoak sortzen dituzten habitat urperatuak birsortzeko, eta askotariko eskakizunak dituzten organismoak babesteko.

Aurreko kasuan bezala, ingurunean lortzen den inpaktua biodibertsitatea handitzea da, itsas espezieak ugaritzea errazten duten espazioak sortzen baitira.

**3. OCEAN ECOSTRUCTURES**

Proiektu honetan, kaltzio karbonatozko geruza batez estalitako panelak instalatuko dira, itsasoko espezie bentonikoen itsaspenera eta kolonizazioa bultzatzeko. Kaien parametro bertikaletarako bereziki diseinatu daude, eta balio ekologiko handiko espezieen kolonizazioa errazten duen substratua ematen dute. Egitura horien bidez, itsas biodibertsitatea handitzea, biomasa handitzea, CO2 atzitzea eta O2 sortzea lortzen da. Portuko **3 kokalekutan** instalatu dira.

## 4.7. Ekoeraginkortasuna

Portuaren kudeaketa jasangarrian kontuan hartutako ingurumen-alderdi nagusietako bat natura-baliabideen kontsumoa da. Hori dela eta, Bilboko Portuko Agintaritzak kontsumoen azterketa zehatza egiten du urtero, bere ingurumen politikarekin bat datozen minimizazio-estrategiak ezartzen saiatuz.

Bilboko Portuko Agintaritzak kontsumitutako **baliabide natural** mota nagusiak energia elektrikoa, erregai fosilak eta edateko ura izan dira. Era berean, Portuko Agintaritzan erabili den paper guztia %100 birziklatua izan da, “Blue Angel” bezala ziurtatua.



*A\_29 Lurzoruaren erabileraren efizientzia, instalazio aktiboek okupatzen duten lurreko zerbitzu-eremuaren ehuneko gisa adierazita, instalazio horiek propioak izan edo emakidan edo baimenean egon.*

Zerbitzu-eremuaren %94 BPAren berezko instalazio aktiboek edo emakidadunek okupatzen dute.

*A\_30 Azken hiru urteetan, gutxienez, Portuko Agintaritzaren urteko guztizko ur-kontsumoaren bilakaera, guztira metro kubiko eta metro kubiko gisa adierazita zerbitzu-eremuaren azaleraren metro koadro bakoitzeko, sarearen kudeaketa Portuko Agintaritzaren esku dagoen edo kanpora aterata dagoen adierazita.*

BPAk kudeatzen du portuko ura banatzeko lehen mailako sarea, eta bigarren mailako sarearen kudeaketa Ur Partzuergoak egiten du.

- ◆ Portuko Agintaritzak kontsumitzen duen ur guztiaren %50 eta %75 artean kontrolatzen du.
- ◆ BPAren kontsumo zenbatetsia, lehen mailako sareko 2024ko erabileren arabera **(G4-EN8)**.
- ◆ Ura aurrezteko neurrien artean daude kontagai-luak kontrolatzea eta ureztatze-sarea hobetzea.

	2022	2023	2024
Kontsumoa m <sup>3</sup> -tan	53.817	46.269	90.009
Zerbitzugunearen azalera m <sup>2</sup> -tan	4.729.159	4.369.673	4.340.917
<b>Ratioa m<sup>3</sup>/m<sup>2</sup></b>	<b>0,011</b>	<b>0,010</b>	<b>0,020</b>

*\* Sare nagusiko ur-kontsumoa lortzeko, itsasontzien geldialdiko hornidura eta garbiketa-uraren kontsumoa kendu dira.*

Kontsumo-iturria	Guztizkoaren gaineko %-a
Etxekoa/bulegoak	70
Berdeguneak ureztatzea	8
Itsasontziak geldialdian	21
Garbiketa eta obrak	1

**A\_31 Ura banatzeko sarearen eraginkortasunaren bilakaera, gutxienez azken hiru urteetan, banaketa-sare horren zuzeneko kudeaketa egiten duten Portuko Agintaritzentzat, ehunekotan adierazita.**

Ura banatzeko lehen mailako sarearen eraginkortasuna, 2024an, %75ekoa izan da, eta sarea berrikusi da.

	2022	2023	2024
Sarearen eraginkortasuna %-tan	75	75	75

**A\_32 Portuko Agintaritzaren instalazioetako energia elektrikoaren eta zerbitzu komuneko eremuetako argiteriaren urteko guztizko kontsumoaren bilakaera, gutxienez azken hiru urteetan, guztizko kwh eta zerbitzu-eremuko metro koadroko guztizko kwh gisa adierazita.**

2020. urteaz geroztik, BPAk kontsumitutako elektrizitatea **%100 berriztagarria** da, eta nabarmen laguntzen du gure jardueraren ondoriozko zeharkako emisioak murrizten.

Operadoreei energia elektrikoa saltzea merkatu librean egiten da.

Portuko Agintaritzak kontsumitzen duen energiaren **%78** baino gehiago kontrolatzen du. Bideargiztapenean aurreikusitako kontsumoa guztizkoaren **%50** da; bulegoetako kontsumoa, berriz, **%50**.

**Energia elektrikoaren urteko kontsumoa Portuko Agintaritzaren instalazioetan (G4-EN3) (G4-**

	2022	2023	2024
Kontsumoa kWh-tan	4.201.402,83	4.209.293,51	4.313.709,25
Zerbitzugunearen azalera m <sup>2</sup> -tan	4.729.159	4.396.673	4.340.917
<b>Ratioa kWh/m<sup>2</sup></b>	0,93	0,95	<b>0,99</b>



**A\_33** Portuko Agintaritzak erabiltzen dituen erregaien (gasolioa, gasolina, gas naturala, etab.) urteko guztizko kontsumoaren bilakaera, gutxienez azken hiru urteetan (autoak, berokuntza, etab.), Kwh gisa eta zerbitzu-eremuko metro koadro bakoitzeko Kwh gisa adierazita **(G4-EN3)**

Kontsumo-iturriak	%
Berokuntza/Ur bero sanitarioa	1,09
Ibilgailuak	66,54
Itsasontziak	20,89
Sorgailuak	2,94
Orga jasotzaileak	0,23
Ibilgailu elektrikoak	8,30

	2022	2023	2024
Erregaien guztizko kontsumoa Kwh-tan	655.632	588.438	482.419
Zerbitzuguneraren azalera m <sup>2</sup> -tan	4.729.159	4.396.673	4.340.917
<b>Ratioa kWh/m<sup>2</sup></b>	<b>0,14</b>	<b>0,13</b>	<b>0,11</b>

Bilboko Portuko Agintaritzak erregia aurrezteko hartutako neurria **(G4-EN19)**

### Erregai motaren arabera kontsumoa 2024an

Erregai mota	%
Gas propanoa kg	1,091
Gasolina lt	28,03
Garraiorako A gasolioa	20,75
Autogasa/PLG	17,75
Ontzietarako B gasolioa	20,89
Sorgailuetarako B gasolioa	2,94
Orga jasotzailetarako A gasolioa	0,23
Ibilgailu elektrikoak	8,30

Erregai-kontsumoa murriztu egin da aurreko ekitaldiarekin alderatuta; zehazki, Berokuntzari/Ur bero sanitarioari dagozkionak. Izan ere, Portuko Babeseko eraikinean dagoen galdara kendu da, eta bero-ponpak jarri dira haren orde.

Era berean, joan den urtean egin zen flotaren orde, ibilgailu jasangarriagoak erabili dira, eta horrek esan nahi du automobilgintzako erregaien kontsumoa murriztu egin dela.



## 4.8. Portuko Komunitatea

**A\_34** *Portu-zerbitzuen bete behar partikularren agirietan, emateko baldintzetan eta emakidako edo baimeneko tituluetan ingurumen-alderdiei buruz ezarritako baldintzen edo eskakizunen deskribapen sintetikoa.*

Zerbitzuak ematen dituzten enpresek ingurumenaren arloan aplikatu beharreko araudia bete beharko dute, baita, hala badagokio, ezartzen diren ingurumen-arau espezifikoak ere.

Lizentzia eman eta urtebeteko epean, zerbitzu-emaileek EMAS ingurumen-kudeaketako eta -ikuskaritzako erkidegoko sistemaren erregistroan inskribatuta egon beharko dute, edo ISO-14001: 2015 ingurumen-kudeaketako sistema bat ezarri-ta eta ziurtatuta izan beharko dute.

Era berean, emaileek protokolo bat edo, hala badagokio, Kontingentzia-plan bat izan beharko dute balizko isurketetarako, bai isurketa propioetarako, bai administrazio eskudunak eskatuta esku hartzeko.

BPAk Ingurumen Baldintzen Protokolo Galdagarriak ditu, emakidadunentzat zein kontratistentzat. Protokolo horiek indarreko ingurumen-araudia eta aplikagarri zaizkien BParen ingurumen-baldintzak betetzera behartzen dituzte . **(G4-EN27)**

**A\_35** *Portu-instalazioetan ingurumen-kudeaketako sistemak ezartzeko maila, honako hauen guztizko kopurua eta ehunekoa adierazita: salgaien itsas terminalak eta bidaiarien itsas geltokiak, emakidako edo baimeneko erregimenean, eta portu- edo merkataritza-zerbitzuak emateko lizentzia edo baimena duten enpresak, EMAS ziurtagiria dutenak edo ISO 14001:2015 arauaren arabera ziurtatuta daudenak, "bere jardueraren garapenarekin lotutako ingurumen-alderdi guztiak" barne hartzen dituztenak.*

IKS sistemaren bat ezarrita duten itsas terminalen eta zerbitzu-enpresen kopurua eta ehunekoa		
Terminal/zerbitzu mota	IKS dutenen guztira	IKS dutenen %
Salgaien terminala	12	100
Bidaiarientzako terminala	-	-
Zamaketa-zerbitzua	-	-
MARPOL zerbitzua	1	100
Zerbitzu Tekniko Nautikoa	1	100

Portuan zerbitzuak ematen dituzten eta ISO 14001:2015 arauaren arabera ziurtatuta dauden **14 enpresa** horietatik bostek, gainera, EMAS III ziurtagiria dute.

Portuko Agintaritzak hainbat ekimen abiarazi ditu portu-zerbitzuak eta emakidak ematen dituztenek IKS onar dezaten bultzatzeko. **(G4-EN27)**

- Jarduera-tasarako hobariak arautzeko jardunbide egokien hitzarmen orokor bat onartzea.
- IKS izateko baldintza zerbitzu-pleguetan eta emateko baldintzetan sartzea.

**1. eranskina. EPEP adierazleen zerrenda eta definizioa (G4-DMA)**

ALDERDI INSTITUZIONALA	
AURKIBIDEA	
I_01	Portuko Agintaritzaren forma juridikoaren deskribapen orokorra, hainbat alderdiri buruzko informazioa emanez: titulartasuna, eskumen-esparrua, jabari publikoaren kudeaketa-eskema eta finantzaketa-mekanismoak (33/2010 Lege berriaren arabera).
I_02	Portuko Agintaritzaren gobernu-organoen funtzioak eta haiek hautatzeko modua, hala nola Presidentetza, Zuzendaritza eta Administrazio-Kontseilua.
I_03	Portuko Agintaritzaren Administrazio-Kontseiluaren egitura, bertan ordezkaturik dauden talde eta elkarteei buruzko informazioa emanez.
I_04	Portuko Agintaritzak erabakiak hartzeko erabiltzen dituen kudeaketa- eta laguntza-sistemen deskribapena, hala nola kalitatea kudeatzeko sistemak, aginte-mahai integralak, merkatuak ezaugarritzeko kanpainak, etab.
I_05	Zuzendaritza-batzordea izatea eta haren egitura.
I_06	Administrazio Kontseiluari laguntzeko batzorde tekniko sektorialen deskribapena, Nabigazio eta Portu batzordeaz, Portuko Zerbitzuen batzordeaz, Segurtasuneko Aholku Batzordeaz gain.
I_07	Portuko Agintaritzak azpiegituren hornitzaile gisa duen zereginaren deskribapena eta LandLord motako ereduaren aipamena. Portuaren ezau-garri tekniko orokorrak zerrendatzea, hala nola, lehorreko azalera, babestutako ur-azalera, emakidetarako azalera, kaiak eta horien funtzioak, eta lurreko sarbideak.
I_08	Gauzatzen edo proiektuan dauden azpiegiturak eta zein helburutarako erabiltzen diren.
I_09	Industria edo logistika sustatzeko ekimenak, hala nola, Jarduera Logistikoen Eremu (JLE) batean, portu lehorrean eta abarretan parte hartzea, eta zertarako balio duen.
I_10	Trafikoen bilakaera, gutxienez azken lau urteetan, mugitutako tonak guztira, tonak guztira, salgai-talde generikoen arabera, eta talde horietako bakoitzaren ehunekoa guztizkoaren gainean adierazita.
I_11	Hinterland eta foreland. Salgaien jatorri eta helmuga nagusiak. Halakotzat hartzen dira portuko trafikoaren % 70 hartzen dutenak.
I_12	Bost bezero nagusiei fakturatutako negozio-zifra, fakturatutako guztizkoaren ehunekoa adierazita.
I_13	Portuaren garapenerako tokiko garapen ekonomikoan oinarri diren sektore edo jarduera garrantzitsuenen deskribapena.
I_14	Ekimen pribatuak zerbitzuak ematean eta portua ustiatzean duen zeregina deskribatzea. Zerbitzu motak, bakoitzerako Portuko Agintaritzaren eta ekimen pribatuaren zeregina deskribatuta. Portuko Agintaritzak jarduera arautu eta kontrolatzeko duen zereginaren deskribapena, horretarako dituen mekanismoak aipatuz.
I_15	Portuan emakida edo baimen bidez edo lizentzia bidez jarduten duten enpresen kopurua.

ALDERDI INSTITUZIONALA	
AURKIBIDEA	
I_16	Emakidako merkataritza-erabilera ezaugarritutako lehorreko azalera errearen ehunekoak.
I_17	Portuan guztira mugitutako tonen ehunekoak, emakidako edo baimendutako salgaien itsas terminalei dagozkienak, salgaien trafiko osoarekiko.
I_18	Portuko Agintaritzak ezarritako informazio-mekanismoak, portuan zerbitzuak eman edo emakida bat lortu nahi duen operadore orok portuan jarduteko baldintzak eta prozesu hori arautzen duten administrazio-mekanismoak modu gardenean ezagutu ahal izatea bermatzeko, hala nola, Internet bidez zerbitzuak arautzen dituzten agiriak, sektoreko informazio-jardunaldiak, etab.
I_19	Portuko Agintaritzak sustatutako ekimenak eraginkortasuna, zerbitzuaren kalitatea eta salgaiei emandako zerbitzuen errendimen dua hobetzeko.
I_20	Zerbitzuaren kalitatea hobetzeko hobariak baliatu diren enpresa emakidadun edo baimenduen eta portu-zerbitzuak ematen dituztenen kopurua. Enpresa horien trafiko-bolumena.
I_21	Portuko Agintaritzak portuaren azken bezeroen kexak edo iradokizunak jaso eta kudeatzeko eta portuaren zerbitzuekin haiek duten gogobetetze-maila ebaluatzeko bultzatutako ekimenen deskribapena.
I_22	Egungo, errepide- eta trenbide-sarbideak, eta horiek hobetzeko aurreikusitako jarduketak, bai eta Portuko Agintaritzak azpiegituraren, koordinazio funtzionalaren eta merkataritza-kudeaketaren eremuetan portu-trenbide intermodalitatea bultzatzeko hartutako estrategien deskribapena ere.
I_23	Portuko Agintaritzak hartutako estrategien deskribapena, ibilgailuen zamaketa eta deskarga operatiboaren bidez artatzen den trafikoa (Ro-Ro) sustatzeko.
I_24	Azken hiru urteetan, portutik trenbidez sartzen eta irteten den salgaien ehunekoaren bilakaera, errepide eta trenbide bidezko trafikoari dagokionez; eta azken hiru urteetan, portuan sartzen eta ateratzen den itsas salgaien ehunekoaren bilakaera, errodadura bidezko karga- eta deskarga-eragiketen bidez, itsas inportazio-espaziozko salgai orokor guztiarekiko.
I_25	Portuko Agintaritzak identifikatutako interes-taldeen zerrenda.
I_26	Interes-taldeekin komunikatzeko eskema eta talde horiek parte hartzeko eredua.
I_27	Interes-taldeen ardura edo kezka nagusiak.
I_28	Beste administrazio batzuekiko koordinazio- eta lankidetzaproiektuak.
I_29	Portuko Agintaritza kide den edo aktiboki parte hartzen duen elkarte tekniko edo enpresarialak.
I_30	Portuko Agintaritzak Portuaren merkataritza-sustapenerako sustatutako ekimenen deskribapena. Merkatu-prospekzioarako sektore objektiboak eta egin litezkeen landa-lanei erreferentzia.

ALDERDI INSTITUZIONALA	
AURKIBDIEA	
I_31	Portuaren merkataritza-sustapenerako gastuen zenbatekoa, gastuen guztizko gisa eta ustiapen-gastuen ehuneko gisa adierazita.
I_32	Internet bidez edo beste bide telematikoko batzuen bidez komunikatzeko eta zerbitzuak emateko proiektuak deskribatzea, portu-kudeaketa optimizatzeke, interes-taldee informazioa emateko edo bezeroen edo hornitzaileen administrazio-kudeaketa ahalbidetzeko.
I_33	Portuko Agintaritzak sustatutako edo aktiboki parte hartzen duten I+G+B proiektuak, horien helburuak eta lorpenak, eta proiektu horietan lankidetzan aritzen diren erakundeak. Kontzeptu horretara bideratutako guztizko baliabide ekonomikoak: gastuak eta inbertsioak, guztizko gisa adierazita eurotan eta Portuko Agintaritzaren gastu eta inbertsio guztien ehuneko gisa.
I_34	Portuko Agintaritzak sustatutako edo lagundutako fundazioak, kultura-ekimenak, ikastaroak, mintegiak, irakaskuntza-programak edo bestelako gizarte-programak eta erabilitako guztizko baliabide ekonomikoak: gastuak eta inbertsioak, guztizko gisa adierazita eurotan eta Portuko Agintaritzaren gastu eta inbertsio guztien ehuneko gisa.
I_35	Portuaren eta hiriaren arteko interfasea hobetzeko programen edo proiektuen deskribapena, eta kontzeptu horretara bideratutako guztizko baliabide ekonomikoak: gastuak eta inbertsioak, guztizko gisa adierazita eurotan eta Portuko Agintaritzaren gastu eta inbertsio guztien ehuneko gisa.
I_36	Guztizko baliabide ekonomikoak: babesaren eta segurtasunaren arloan erabilitako gastuak eta inbertsioak, guztizko gisa adierazita eurotan eta Portuko Agintaritzaren gastu eta inbertsio guztien ehuneko gisa. Horiek osatzen dituzten partidak edo ekimenak deskribatzea.
I_37	Baliabide ekonomikoak guztira: ingurumenaren arloan erabilitako gastuak eta inbertsioak, eurotan guztira eta Portuko Agintaritzaren gastu eta inbertsio guztien ehuneko gisa adierazita. Horiek osatzen dituzten partidak edo ekimenak deskribatzea.

ALDERDI EKONOMIKOA	
AURKIBIDEA	
E_00	Trafikoaren bilakaera.
E_01	Urteko errentagarritasuna, ekitaldiko emaitzaren ehuneko gisa adierazia batez besteko aktibo ez-korronteeikiko, Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzko ekainaren 29ko 2/2012 Legearen azken xedapenetako hogeita bigarrenean emandako definizioaren arabera.
E_02	Gutxienez azken hiru urteetan, EBITDAren bilakaera eurotan adierazita, mugitutako tona guztiena, EBITDA ratioarena mugitutako tona guztiena eta EBITDAren aldakuntza-ehunekoarena, aurreko ekitaldiarekiko (abenduaren 31n itxia) ehuneko gisa adierazia.
E_03	Zorraren zerbitzua, honela adierazita: $100 \times (\text{Zorraren amortizazioa} + \text{Interesak}) / (\text{cash flow})$ .
E_04	Jarduerarik gabeko aktiboak, ekitaldian zehar jarduerarik gabeko lur eta ondasun natural gisa zehaztuak, balio ekonomiko, sozial edo ingurumenekoan jar daitezkeenak, ekitaldiko batez besteko aktibo ez-korronte garbiaren gaineko kontabilitate-balio garbiaren ehuneko gisa adierazita.
E_05	Ustiapen-gastuen bilakaera, gutxienez azken hiru urteetan, ustiapeneko diru-sarrerei dagokienez.
E_06	Portuko Agintaritzaren kargurako inbertsio publikoaren bilakaera, gutxienez azken hiru urteetan, cash flowarekiko
E_07	Kanpoko inbertsioaren bilakaera, gutxienez azken hiru urteetan, Portuko Agintaritzaren kargurako inbertsio publikoaren aurrean.
E_08	<i>Aktiboak berritzea, ekitaldiko batez besteko aktibo ez-korronte garbiarekiko urteko inbertsio-bolumenaren erlazio gisa adierazita</i> (Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzko ekainaren 29ko 2/2012 Legearen arabera).
E_09	Okupazio- eta jarduera-tasen diru-sarreraren bilakaera, gutxienez azken hiru urteetan, baita horietako bakoitzaren ehunekoa ere negozio-zifraren zenbateko garbiarekiko (NZZG).
E_10	Merkataritza-erabilera duen lurreko zerbitzu-eremuko (emakidetarako azalera) metro koadroko mugitutako tonen bilakaera, gutxienez azken hiru urteetan.
E_11	Kaiaren metro linealeko mugitutako tonen bilakaera, gutxienez azken hiru urteetan. Kai aktibotzat hartzen da azken hiru urteetan jarduera erregistratu duena.
E_12	Langile bakoitzeko negozio-zifraren zenbateko garbiaren bilakaera, gutxienez azken hiru urteetan (urteko batez besteko plantilla).
E_13	Langile bakoitzeko EBITDAren bilakaera, gutxienez azken hiru urteetan (urteko batez besteko plantilla).
E_14	Portu-komunitateak zuzeneko, zeharkako eta eragindako enpleguen kopuruaren kalkulua, kalkulu hori egiteko jarraitutako azterketa eta metodologia aipatuz.
E_15	Portu-komunitatearen balio erantsi gordinaren zenbatespena, kalkulu hori egiteko jarraitu den azterketa eta metodologia aipatuz.

ALDERDI SOZIALA	
<b>AURKIBIDEA</b>	
<b>S_01</b>	Portuko Agintaritzako langileen guztizko kopurua.
<b>S_02</b>	Aldi baterako langileen ehunekoa, langile finko guztiekiko.
<b>S_03</b>	Langileen banaketa, jarduera-eremuen arabera.
<b>S_04</b>	Hitzarmen kolektiboek estalitako langileen ehunekoa.
<b>S_05</b>	Langileak ordezkatzeko eta horiek zuzendaritzarekin komunikatzeko mekanismoak.
<b>S_06</b>	Langileek Portuko Agintaritzaren ekoizpen-prozesuen hobekuntzan teknikoki parte hartzeko mekanismoak.
<b>S_07</b>	Prestakuntza-programak jarraitzen dituzten langileen ehunekoa, hitzarmenaren barruko eta kanpoko langileak berezita.
<b>S_08</b>	Langile bakoitzeko prestakuntza-orduen batez bestekoaren bilakaera, hitzarmen barruko eta kanpoko langileak berezita.
<b>S_09</b>	Abian diren prestakuntza-programen kopurua, gaitasunen araberrako kudeaketa-sistemari dagokionez.
<b>S_10</b>	Emakumeen ehunekoa langile guztiekiko.
<b>S_11</b>	Hitzarmenera atxikita ez dauden emakumeen ehunekoa langile guztiekiko eta hitzarmenetik kanpoko langile guztiekiko.
<b>S_12</b>	50 urtetik gorako langile finkoen ehunekoa.
<b>S_13</b>	30 urtetik beherako langile finkoen ehunekoa.
<b>S_14</b>	Istripuen urteko maiztasun-indizearen (MI) bilakaera.
<b>S_15</b>	Istripuen urteko larritasun-indizearen (LI) bilakaera.
<b>S_16</b>	Urteko absentismo-indizearen bilakaera.
<b>S_17</b>	Ahalegina laneko arriskuen prebentzioaren arloko prestakuntzan.
<b>S_18</b>	Segurtasunaren arloko ariketen eta simulakroen kopurua eta babesaren arloko ariketen edo simulakroen kopurua.
<b>S_19</b>	Salgaien itsas terminalek, bidaiarien itsas estazioek eta portuko zerbitzuak ematen dituzten enpresek guztira sortutako zuzeneko enpleguen gutxi gorabeherako kopurua.
<b>S_20</b>	Portu-zerbitzuen baldintza partikularren agirietan, emate-baldintzetan eta emakidako edo baimeneko tituluetan segurtasunari eta prestakuntzari buruz ezarritako baldintza edo eskakizunen deskribapen sintetikoa.
<b>S_21</b>	Portu-komunitatean portuko laneko arriskuen prebentzioaren arloan dauden enpresa-jarduerak koordinatzeko mekanismoak deskribatzea.
<b>S_22</b>	Emakida edo baimen erregimenean dauden salgaien itsas terminalen eta bidaiarien itsas geltokien guztizko kopurua eta ehunekoa, bai eta OHSAS sistema duten portu- edo merkataritza-zerbitzuak emateko lizentzia edo baimena duten enpresena ere.
<b>S_23</b>	Portuko Agintaritzak koordinatutako eta portu-komunitateari zuzendutako segurtasunari eta babesari buruzko prestakuntza-ekintza teknikoaren kopurua.
<b>S_24</b>	Portuko Agintaritzaren ekintzak desgaitasuna duen pertsonen irisgarritasun-beharrei erantzuteko (besteak beste: baldintzak bidaiarientzako zerbitzu-lizentzietan eta itsas geltokiekin lotutako emakida eta baimenetan; ekintza zehatzak eremu komunetan).

INGURUMEN ALDERDIA	
AURKIBIDEA	
A_01	Guztizko baliabide ekonomikoak, EMAS erregelamenduaren, ISO14001: 2015 arauaren edo PERS ziurtagiriaren arabera Portuko Agintaritzaren ingurumen-kudeaketako sistema bat ezartzeari, ziurtatzeari eta mantentzeari lotutakoak, guztizko gisa adierazita eurotan eta Portuko Agintaritzaren gastu eta inbertsio guztien ehuneko gisa.
A_02	Ingurumen-monitorizazioko eta -karakterizazioko baliabide ekonomikoak.
A_03	Lurreko eta uretako eremu komunak garbitzeko garbiketa-gastuak.
A_04	Ingurumen-prestakuntza, ingurumen-prestakuntza jaso duten Portuko Agintaritzaren plantillako langileen portzentaje gisa adierazia, portuan egiten diren eginkizunekin bat datorrena.
A_05	Portuko emisio-foku nagusien (puntualak eta lausoak) deskribapen sintetikoa, emisio esanguratsuak dakartzatenak, hala nola: portu-azpiegiturak eraikitzea, eraistea eta mantentzea, portuko jardunari lotutako makinaren emisioak, ibilgailuen zirkulazioko motorren emisioak portu-instalazioetan, atrakatutako ontziak, ontziratu gabeko gai solidoen erabilera edo biltegitratzea, edo portuko jarduerarekin lotutako beste batzuk.
A_06	Portuko Agintaritzak erregistratutako kexa edo salaketen kopuruaren bilakaera, gutxienez azken hiru urteetan, portuko interes-taldeek (portu-komunitateak, hiriguneak, administrazioak, etab.) egindakoak hauts-emisioei edo, oro har, airearen kalitateari dagokienez. Kexak kudeatzeko sistema sistematizatu bat izatea.
